

**2019ko APIRILAREN 25ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **6 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko apirilaren 25ean, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Gai-zerrendan dauden gaiak aztertzen hasi aurretik, **alkate** jaunak Udalbatzak adostutako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau irakurri du, **Minga Social por la Defensa de la Vida, el Territorio, la Democracia, la Justicia y la Paz** mugimenduari elkatasuna eta babesa adieraztekoa dena:

Zarauzko Udalak bere elkartasuna eta babesa adierazten dio 2019ko martxoaren 10etik Kolonbiako hego-mendebaldeko herri indigenak, beltzen komunitateak, nekazariak eta eragile sozialak batzen dituen eta azken egunetan beste

departamendu batzuetara zabaldu den **Minga Social por la Defensa de la Vida, el Territorio, la Democracia, la Justicia y la Paz** mugimenduari.

Minga jaia da, hitzak ehuntzea, ibiltzea, herrien, komunitateen, erakunde sozial eta herrikoien borroken batasuna lortzeko ahots askoren arteko elkarrizketa da. Guztiaren aurretik, herriek bizirik jarraitzea eta ongi bizitzea bermatzeko manifestazio baketsua da.

Hala, lurralde mailako gobernagarritasunaz eta protesta sozialerako legezko eskubideaz baliatuz, Minga handi baterako deialdia egin da, kontuan hartuta herrialdeak egun bizi duen egoeraren larritasuna:

- Gobernua arriskuan jartzen ari da bakea: ez ditu bete Bake Akordioak, eta eragozpenak jartzen dizkio Bakerako Justizia Bereziari (JEP).
- Gatazka armatuaren eta ekintzaileen berrantolaketaren aurrean gobernuak erakusten duen pasibotasunak krisi humanitario sakonean dauzka lurraldeak.
- Sortu dituen landa garapen ekonomiko eta sozialerako interesguneak (ZIDRES) kaltegarriak dira lurralde horietan bizi diren herrien eta komunitateen interesetarako.
- Handitzen ari da lider sozialen estigmatizazioa, kriminalizazioa, mehatxuak eta hilketak.
- Kongresuan aurkeztutako Garapenerako Plan Nazionalak urratu egiten ditu Gobernuaren eta herri indigenen, komunitate beltzen eta nekazarien arteko hitzarmen-mahaian hartutako akordioak, eta bizitza are eta arrisku handiagoan jartzen du lurraldeetan.
- Gobernuek sistematikoki urratzen dituzte komunitate etnikoekin eta erakunde sozial eta herrikoiekin hartutako akordioak.

Egoera horren aurrean, Gobernu kolonbiarra Mingari ematen ari zaion tratamendu militarra eta indarkeriazko erantzuna **SALATZEN DITUGU**. Horien ondorioz larriki urratu dira bakean manifestatzera irten diren pertsonen giza eskubideak. Mingan bildutako familien kanpalekuak behin eta berriz erasotu dituzte. Dagoeneko 25 zauritu baino gehiago izan dira, horietako 6, larriki zaurituak. Gainera, ORIVACeko guardia indigenaren aurkako sarraskiak, martxoaren 21ean Dagua-n gertatutakoak (Valle del Cauca), 9 guardia indigena hildako eta 15 zauritu utzi zituen.

Egoera horretan, guztiz gaitzesten ditugu: a) libreki elkartzeko eta manifestatzeko eskubidea baliatzen ari direnen kontra Defentsa Ministroak egindako adierazpenak, eta b) herrialdeko komunitate etnikoekin eta erakunde sozial eta herrikoiekin historikoki hitzartutako akordioak betetzeko elkarrizketa bat hasteari ezezkoa ematea.

Duque presidenteari ESKATZEN DIOGU:

- Berehala Cauca-ra joan, eta hitz egiteko eser dadila, elkarrizketa delako prozesuak hurbiltzeko bide politikoa. Errepublikako presidente Ivan Duque

Marquez jaunak erantzun diezaiola komunitate mobilizatuek egindako deiari: zuzeneko elkarrizketa bat hasi dezatela, elkarte partaideek azaldutako arazoak konpontzeko, eta benetako borondatea egon dadila hitzartutako akordioak betetzeko. Horrela adieraziko luke benetan prest dagoela lurralde horietan bakea eraikitzeko.

- Protesta baketsuak egiteko oinarrizko eskubidea berma dezala (Konstituzio Politikoan jasota dagoen bezala), giza eskubideen nazioarteko esparruko estandarrak betez. Gaur mobilizatuta dauden herriak ez judizializatzea ere sartuko da berme horietan.
- Zure gobernuari eta giza eskubideen aldeko lider sozialak eta defendatzaileak babesteko ardura duten erakunde arduradunei eskatzen diegu neurri integral eta kolektibo guztiak martxan jar ditzatela, presaz eta benetan, pertsona horien segurtasuna eta bizitza bermatzeko eta beren zereginak egin ahal izateko.
- Minga ez dadila estigmatizatu, ez judizializatu, ez eta militarizatzen jarraitu. Eta behingoz bukatu dadila Polizia Nazionalaren Karabineroen Eskuadroi Mugikorrek (AMCAR), Istiluen Aurkako Eskuadroi Mugikorrek (ESMAD) eta Armada Nazionalak suzko armen bidez egiten duten errepresioa.
- Zorrozkari azter daitezela mobilizazioetan gertatu diren giza eskubideen urraketak, eta, bereziki, argitu dadila Corregimiento Cisneros-en joan den martxoaren 21ean gertatutako sarraskia (Dagua udalerrria, Valle del Cauca), eta, ondorioz, arduradunak epaitu daitezela eta biktimek euren eskubideak berreskura ditzatela, zuzenean edo zeharka eragindako herriei, komunitateei eta familiei arreta osoa eskainiz.
- Herrialdeko komunitate etnikoekin eta erakunde sozial eta herrikoiekin historikoki hitzartutako akordioak bete daitezela.
- FARC-EP taldeekin sinatutako Bake Akordioa errespetatu eta bete dadila, eta ELNrekin elkarrizketa-mahaia osa dadila.
- Garapenerako Plan Nazionalak errespetatu ditzala gobernuaren eta herri indigenen, komunitate beltzen eta nekazarien arteko hitzarmen-mahaietan lortutako akordioak.

Azkenik, **DEI EGITEN** diegu Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioari, Giza Eskubideen Batzorde Amerikarrari, NBEko Egiatzaite Batzordeari, Kolonbiako Bake Prozesua Babesteko Amerikako Estatuaren Erakunde Misiolari, Errepublikako Senatuko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalari, Herriarrentzako Defentsa Bulegoari eta Nazioko Prokuradoretza Nagusiari, euren zereginetan eta eskumenetan, lagun diezaietela Kolonbiako hego-mendebaldeko Minga soziala doluz jantzi duten gertakariak eragindako komunitate eta familiei.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2019ko MARTXOAREN 28ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Idazkariak aldaketa baten berri eman du. Adierazi duenez, «*MUSIKA ETA DANTZAKO UDAL ESKOLARAKO HIGIEZINA EROSTEKO KONPROMISOEN AKORDIOA*» izeneko erabakiaren jakinarazpena egin ostean, “Compañía de las Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul de la Provincia Canónica de San Sebastián” konpainiak bere izena aldatu izana jakinarazi zuen: hain zuzen ere, orain “*COMPAÑÍA DE LAS HIJAS DE LA CARIDAD DE SAN VICENTE DE PAUL DE LA PROVINCIA CANÓNICA DE ESPAÑA NORTE*” dela.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, akta onartzea adierazitako zuzenketarekin.

2.- 2019ko APIRILAREN 1eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– **2019ko martxoaren 25etik apirilaren 16ra.**

Segidan, Alkatetzak 2019ko martxoaren 25etik apirilaren 16ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– **2019ko martxoaren 25etik apirilaren 15era.**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 25etik apirilaren 15era hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- GAI HONEN BERRI JAKITEA

– **0367 Dekretua: 2018ko aurrekontuaren likidazioa.**

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hemen jasotako erabakia irakurri du idazkari andreak:

Alkatetzaren 0367 Dekretua, 2019ko martxoaren 29koa:

“Zarauzko Udalaren 2018ko Aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau **ERABAKITZEN DUT:**

Lehena.- Zarauzko Udalaren 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n		962.657,90
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		12.576.582,52
Aurrekontuko zordunak :	5.567.549,68	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.233.277,34	
Aplikatu gabeko kobrantzak:	224.244,50	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		4.637.787,11
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	3.410.151,89	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.233.835,22	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	6.200,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		8.901.453,31
5.- Saldo kobragaitzak:		984.260,98
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		59.660,38
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		7.857.531,95

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-774.361,87
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-143.588,53
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	3.897.160,17
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-73.129,67
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.906.080,10

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.331.478,54
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	3.331.478,54

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

6.- TXOSTENA: 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEAN, AURREKONTUEN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA.

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaio – eta jakinaren gainean geratu da – Kontu-hartzaileak 2019ko martxoaren 25ean egindako txostena, eta jakinaren gainean geratu da: aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa, eta Udalak onartu berri duen 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren ondorioz egin beharrekoa zena, hain zuzen.

7.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2019ko 1. hiruhilekoa

Udalbatzak jakin berri du 2019ko lehen hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

8.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2019ko 1. hiruhilekoa

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2019ko lehen hiruhileko ordainketako batez besteko epari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

9.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA

– 2019-KALD-000005-00 zk. (Kreditu gehigarriak).

2019-KALD-000005-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea tramitatu du Udalak: 2019ko ekitaldirako aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da.

Ikusita jarduneko kontu-hartzaileak egin duen txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Hasierako onespena ematea 2019-KALD-000005-00 zenbakia duen KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEari. Udal honek aurtengo ekitaldirako duen aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, egindako proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	49.800,00 €
6	Inbertsio errealak	1.678.599,14 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA ...		1.728.399,14 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	1.728.399,14 €
	GUZTIRA ...	1.728.399,14 €

10.- GAUEKO ORDUTEGIAN DIHARDUTEN OSTALARITZAKO, AISIALDIKO ETA BESTELAKO ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA

2018H1330002 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	–	
Abstentzioak:	2	(2 Irabazi Zarautz)

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“2019ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea GAUEKO ORDUTEGIAN DIHARDUTEN OSTALARITZAKO, AISIALDIKO ETA BESTELAKO ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN aldaketari.

Espedientea jendaurrean jarri zen, eta ondorengo proposamenak egin ziren ordutegi murriztua duten tabernentzat:

- Egun duten ordutegia mantentzea –8:00etatik 22:00etara– (Barren plazako bizilagunak).
- Onartzea jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak ezartzen dituen araudi autonomikoko 2 taldeko jardueri baimendutako ordutegia, edo, bestela, onartzea 23:00etan ixtea (ordutegi murriztuko tabernak).

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak proposamenei buruzko txostena egin zuen. Aldi berean, hasierako testuan zuzenketa batzuk egitea proposatu zuen.

Lurraldeko informazio-batzordeak espedientea eztabaidatu zuen.

Aztertu eta eztabaidatu ondoren Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Aurkeztutako proposamenei erantzutea, ondokoaren arabera:

Ez onartzea ordutegi murriztuko tabernek egindako proposamenak, eta indarrean dagoen udal ordenantzaren ordutegia mantentzea (8:00etatik 22:00etara); dena den, eskaera berriz aztertu daiteke, Zaratari buruzko Zarauzko Ekintza Plana onartu ondoren.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea ren aldaketari.

Onartu den testua hasierako onespena jaso zuen berbera da, baina ondorengo zuzenketekin: indargabetu den 297/1997 Dekretuaren erreferentziak kentzea, eta ordutegi murriztuko tabernen zerrenda eguneratzea.

Hirugarrena.- Ordenantza indarrean sartzeko, haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

GAUEKO ORDUTEGIAN DIHARDUTEN OSTALARITZAKO, AISIALDIKO ETA BESTELAKO ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

Aldatutako artikulua

3. artikulua. Sailkapena kategoriaka.

1.- Jarduerak edo establezimenduak ondorengo kategoriatan sailkatzen dira, soilik ordenantza honen aplikazioaren ondorioetarako:

1.1.- **A Kategoria.**- Zarata eta usainak direla-eta garrantzi txikiko eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian eragin txikia dutenak.

Hemen sartzen dira ondorengo lokal eta instalazioak:

a.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiak I. taldearen barruan sartzen dituenak.

b.- Elikagaiak orokorrean, edariak, ogitartekoak edo plater prestatuak saltzen dituzten elikagaien sektoreko merkataritzako establezimenduak, salmenta automatikoa egiten dutenak barne, baldin eta horien funtzionamenduko ordutegiak zarata eta bibrazioei buruzko udal ordenantzan definitu den gaueko ordutegia barne hartzen badu.

c.- Jolas-establezimenduak.

1.2.- **B Kategoria.**- Batez ere usainengatik, baina baita zarata txikiengatik ere, eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian nolabaiteko eragina dutenak.

a.- Hemen sartzen dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiaren II. taldean jasotako zenbait jardura: alkoholodun edariak emateko baimena izan arren, zeregin nagusia sukaldaritza jardura dutenak, baina publikoari edariak emateko barra-zerbitzurik gabe, esaterako: jatetxeak, erretegiak, sagardotegiak, autozerbitzuak, hanburgesategiak, elkarte gastronomikoak, txokoak, eta asimilagarriak.

b.- Era berean talde honetan sartzen dira edariak emateko barra-zerbitzua duten establezimenduak (taberna-jatetxea), baldin jendearentzako zuzendutako taberna gunearen azalera honako ezaugarriak baditu:

1. Gehienez 20 pertsonako edukiera, suteen kontrako araudiaren arabera kalkulatuta.
2. Ez dezala okupatu jangelaren azalaren % 25a.
3. Jatetxeko taberna-gunearen azalera eta jangelaren azalera behar bezala berezita egotea, arkitekturako elementu finko eta iraunkorren bidez, hartara jangela taberna modura erabiltzeko modurik egon ez dadin.

1.3.- C Kategoria.- Garrantzi txikiko zarata eta usainengatik eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian nolabaiteko eragina dutenak.

a.- Hemen sartzen dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiaren II. taldean sartutako gainerako jarduerak eta ordenantza honetako B kategorian sartu gabekoak. Alkoholdun edariak emateko baimena duten lokalak dira, baina horien zeregin bakarra ez da aurreko atalean (**B kategoria**) adierazitakoa. Hemen sartzen dira: barrak, tabernak, kafetegiak, ardandegia eta asimilagarriak.

b.- Joko-establezimenduak batzuk ere, sartzen dira, esaterako joko-aretoak eta apustu-etxeak.

1.4.- D Kategoria.- Batez ere zarategatik eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak, eta gaueko ordutegian eragin nabarmena dutenak.

Hemen sartzen dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiaren III. eta IV. taldeetan sartutako jarduerak (jarduera berezi gisa, musika izateko baimena dutenak), hau da:

a.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegien araudiko III. taldean sartutakoak: Hau da pubak, taberna bereziak, eta abar.

b. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegien araudiko IV. taldean sartutakoak. Hau da, dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

c.- Bingo aretoak eta jokorako kasinoak

2.- Udal teknikariek txosten arrazoitua egin ondoren, Udalari dagokio edozein establezimendu bere kategorian sartzea. Hori egiteko, aurkeztutako proiektuan jasotako aurreikuspenak hartuko dira kontuan, edo bestela, legez tatu nahi den jardueraren errealitatea zein den, edozein izanda ere jarri nahi zaion izena. Establezimendu bat kategoria bat baino gehiagotan sartu badaiteke, distantzia arautegi zorrotzena duen hartan sartuko da.

5. artikulua. Aplikazio esparrua

1.- Arautegi orokorra aplikatuko da inolako araubide berezirik ez duten gune eta / edo jardueretan.

2.- Ez da distantzia-mugarik jartzen A eta B kategorietako establezimenduen artean; ez da, ezta ere, mugarik jarriko A eta B kategorietako establezimenduek C kategoriatik establezimenduekiko izan beharreko distantziaren artean. Hala ere, A edo B kategoriatik edozein establezimendu eta D kategoriatik baten artean 20 metroko tartea eskatuko da.

3.- C kategoriatik establezimenduen artean, eta horien eta D kategoriatikoen artean 20 metroko tartea eskatuko da.

4.- D kategoriatik establezimenduen artean 50 metroko tartea eskatuko da, eta tarte hori 100 metrokoa izango da, baldin establezimenduetatik batek 75 pertsonatik gorako edukiera badu (suteen kontrako araudiaren arabera kalkulatuta).

	A Kategoria	B Kategoria	C Kategoria	D Kategoria
A Kategoria				20 m
B Kategoria				20 m
C Kategoria			20 m	20 m
D Kategoria	20 m	20 m	20 m	50/100 m

6. artikulua. Distantzien eta neurrien zenbaketa

1.- Lokalen arteko distantzien neurketa metodo erradialaren bidez kalkulatu da. Distantzia baztertzailak aurreko artikuluan jasotakoak dira, hain zuzen ere, jarrirako establezimendu bakoitzak, bere kategoriaren arabera, instalatu nahi diren beste establezimenduekiko irradiatutakoak. Plano horizontal bakarraren gainean erradioa proiektatuta neurtuko da distantzia hori, kontuan hartu gabe lokal bakoitza zein sestratan dagoen.

2.- Bi lokalen artean hurbilen dauden puntuetatik hartuta egingo dira neurketak. Erreferentzia modura honako neurketa-puntuak hartuko dira: jarduera berrirako aurreikusitako lokalaren eta lehendik dauden hurbileneko lokalen kanpoaldeko edozein fatxada.

3.- Establezimendu bateko kanpoko fatxadatzat hartuko da eraikinaren berezko fatxada, lokalaren barruko perimetroarekin mugakide dena eta kale batera edo erabilera publikoko espazio batera ematen duena.

10. artikulua. Lokal-kopuru handiko guneetako arautegi berezia

1.- Lokal-kopuru handiko gune gisa kalifikatutako areei artikulua honetan aurreikusitako arautegi berezia aplikatuko zaie. Gune horietan establezimendu asko egoteaz gain, kaleen eta plazen konfigurazioak eta dimentsioak halakoak izanda,

ezinezkoa izaten da lokalek eta haien erabiltzaileek sortutako zarata eta usainen ondorio gehigarriak ohiko neurri zuzentzaileekin konpontzea.

2.- Lokal-kopuru handiko guneen deklarazioa jasotzeko, aurrez, udal ordenantzak onartu edo aldatzeko prozedura izapidetuko da. Espedientea ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta hasiko da. Edonola ere, deklarazio hori bidezkoa dela frogatzeko txosten tekniko arrazoitua egitea beharrezkoa izango da.

3.- Lokal-kopuru handiko area edo guneetan ezin izango da ordenantza honetan araututako jarduera berririk jarri.

4.- Lokal-kopuru handiko area edo guneetan, berrikuntzei, handitzei eta banaketei buruzko arautegi orokorra aplikatuko da (ordenantzaren 7. artikulua)

Lehen Xedapen Gehigarria. Birmoldatze-areak

Birmoldatze-areatzat hartuko da Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko ondorengo area, harik eta behin betiko onartutako antolamendu xehatuko tresnaren bat izan arte, eta hortaz, 16 hirigintza area –OR Hegoalde– ordenantza honetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Ordu-tegi murriztuko tabernak

Alkohol-dun edariak zerbitzeko baimena duten establezimenduak, baina Udalak, distantzia erregimenetik salbuetsita, 8:00 eta 22:00 arteko ordu-tegian aritzeko baimendu zituenak, ordu-tegi horrekin jardungo dute Udalak berariaz, bestelakorik erabakitzen ez duen bitartean.

Ondorengoak dira ordu-tegi murriztua duten tabernak:

- Barren plaza 1. Napar Zahar.
- Bixkonde kalea 2/ Ipar kalea 16. Tidore.
- Gipuzkoa kalea 13. Sanz Enea.
- Gipuzkoa kalea 62. Oneka
- Ipar kalea 3. Lukas taberna.
- Kale Nagusia 19. JA.
- Lege Zaharren 3. Mauka.
- Lege Zaharren 6. Oneka.
- Martiñene Plaza 1. Sebas Vinoteca.
- Patxiku kalea 5. Noiz Bait.
- Trinitade kalea 5. Enoteka Gotzon.
- Zelai Ondo 23. Iluntze.

11.- OSTALARITZAKO, JENDAURREKO IKUSKIZUNETAKO ETA JOKOETAKO LOKALEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA. BEHIN BETIKO ONESPENA

2018H1330001 espedientea

2019ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea OSTALARITZAKO, JENDAURREKO IKUSKIZUNETAKO ETA JOKOETAKO LOKALEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARI.

Espedientea jendaurrean jarri, eta alegazio-idatzi bat aurkeztu zen (*Elkartu*), irisgarritasunaren arloari buruzko gaiekin.

Bestalde, 2019ko otsailaren 5ean onartutako 17/2019 Dekretuak (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzen duen erregelamendua) zuzenean eragiten dio ordenantzari.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak alegazioari buruzko txostena egin zuen. Aldi berean, hasierako testuan zuzenketa batzuk egitea proposatu zuen.

Lurraldeko informazio-batzordeak espedientea eztabaidatu zuen.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Zati batean onartzea *Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzaileak – Elkartu –* aurkeztutako alegazioa.

Horren ondorioz, ordenantzaren 1. eta 4. artikuluek berariaz jasoko dute behar diren neurriak hartuko direla desgaitasuna duten pertsonen zerbitzuetara sartzea eta haietaz gozatzea bermatzeko, eta irisgarritasunaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzeko.

Bigarrena.- Behin betiko onspena ematea OSTALARITZAKO, JENDAURREKO IKUSKIZUNETAKO ETA JOKOETAKO LOKALEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARI.

Onartu den testua hasierako onspena jaso zuen berbera da, baina ondorengoek eragindako zuzenketeekin: alegazioa zati batean onartzeak, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak proposatutako zuzenketak.

Hirugarrena.- Ordenantza indarrean sartzeko, haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

OSTALARITZAKO, JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOKOETAKO LOKALEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA.

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Aplikatzeko-esparrua.

a.- Ordenantza honek ostalaritza, jendaurreko ikuskizun eta joko erabileretara zuzendutako lokalek bete beharreko hainbat baldintza arautuko ditu.

b.- Arau orokor moduan, ordenantzaren aplikazio-esparruan sartuko dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak ezartzen dituen Autonomia Erkidegoko araututako jardueretara zuzendutako lokalak.

c.- Ordenantzak arautuko ditu aurreko ataletan aipatu diren jarduerak, baldin eta jendearentzat irekitako edozein eraikin, lokal, edo instalazio finko, iraunkor eta itxietan burutzen badira, modu iraunkorrean. Ondorioz, aplikazio esparrutik kanpo geratuko dira gunen irekietan egiten direnak, bide eta espazio publikoetan nahiz kanpoaldeko eremu pribatuetan.

d.- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan, eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko eta irisgarritasuna sustatzeari buruzko estatuko eta autonomia erkidegoko Legeetan xedatutakoaren arabera, establezimendu publikoen titularrek behar diren neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen zerbitzuetara sartzea eta haietaz gozatzea bermatzeko, eta irisgarritasunaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzeko.

2.- Artikulua. Establezimenduen sailkapena: Taldeak

a.- Establezimendu edo lokal bakoitzari eskatuko zaizkion gutxieneko baldintzak, jardueraren sailkapenaren arabera izango dira.

b.- Sailkapen hori (I. eta IV. arteko taldeak) bat etorriko da ostalaritzako eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak arautzen duen Autonomia Erkidegoko araudian jasotako talde-sailkapenarekin.

3.- Artikulua. Jardueraren iraungipena funtzionamendu ezagatik

a.- Jarduerari isileko uko egitearekin pareka daitezkeen eta uzte adierazpen zehatzik behar ez duten bestelako egoerak alde batera utzita, Udalak ordenantza honen aplikazio-esparruan sartuta dauden jarduerak iraungitza adierazi ahalko ditu funtzionamendu ezagatik, egiaztatzen bada establezimendua itxita egon dela etengabe bederatzi hilabeteko epean.

b.- Iraungipen adierazpen hori erabaki formal bidez egingo da jardueraren titularrak eta lokalaren jabeak diren pertsonen audientzia eman ondoren.

2. KAPITULUA. LOKALEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

4.-Artikulua. Ordenantzaren aplikazio maila

a.- Kapitulu honetan jasotako arauak ordenantza indarrean jartzen den unetik ezarriko diren jarduera eta establezimendu berriei aplikatuko zaizkie.

b.- Ordenantzaren aurretik baimendutako jarduera eta establezimenduei honako kasuetan aplikatuko zaizkie:

b.1.- Lokala guztiz berritzeko obrak egiten direnean

b.2.- Zatiko berritzetan edo egokitze-obretan obrek ukituko dituzten zati eta instalazioetan.

b.3.- Udalak ordenantzaren aplikazioa salbuetsi ahal izango du, udal teknikoaren iritzia arrazoituan oinarrituta.

c.- Kapitulu honetan arautu gabeko alderdietan, une bakoitzean indarrean dauden araudi orokorretan eta bestelako udal ordenantzetan ezarritakoak aplikatuko dira. Bereziki arreta jarriko zaio irisgarritasunaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzeari.

5 Artikulua. Establezimendu berrien gutxienerako azalera.

a.- Ordenantza honen aplikazio-esparruan jasotako edozein jarduera jarri ahal izateko, erabilera horretara zuzendutako lokalak behe-solairuan gutxienez izan behar duen azalera erabilgarria 50m²-koa izango da, barne distribuzioa kontuan izan gabe; hau da, zenbatuko da itxiera hormen edo beste lokaletik bereizteko trenkaden barruan dagoen azalera osoa. Familia giroko txokoetan, gutxienerako azalera erabilgarria 25m²-koa izango da.

b.- Jarduera talde bakoitzak publikoarentzako erabilgarria izango den ondorengo gutxienerako azalera izango du behe solairuan:

b.1.- I eta II taldeko jarduerak: 30m²-ko azalera erabilgarria

b.2.- III eta IV taldeko jarduerak: 50m²-ko azalera erabilgarria

c.- Ulertuko da espazio bat publikoarentzako dela bereziki pertsonak egoteko eta erabiltzeko denean establezimenduak eskaintzen dituen zerbitzuak gozatzeko. Hortik kanpo geratzen dira atarteak, arrapalak, sotoak, komunak eta horien atarteak, barra-guneak, sukaldeak, "oficce"-ak, biltegiak, bulegoak eta bestelako erabilera pribatuko edo sarbide mugatuko guneak.

6 Artikulua. Komun publikoen dotazioa.

a.- Establezimendu berriak eta daudenak guztiz berritzen badira. Zuzkidura higienikoak arautuko dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Autonomia Erkidegoko xedapenen arabera.

b.- Ordenantzaren aurretik baimendutako jarduerak. Komunetako zatiko berritzeak eta egokitzapenak egiterakoan honako arauak aplikatuko dira:

b.1.- Komun gune bakoitza bata bestearekiko independentea izango da eta horien gutxienerako kopuruak establezimenduak duen jendaurreko azalera erabilgarriaren arabera definituko dira. Ondorengo taulan adierazten dira gutxienerako komun gune kopurua eta bakoitzak eduki behar duen gutxienerako dotazioa.

Jendearentzako azalera erabilgarria (m ²)	Gutxienerako dotazioa	
≤200m ²	2 Komun gune: (bi komun-ontzi eta bi konketa)	(horietatik bat mugikortasun urritua eta aulki gurgildunean dabiltzan pertsonentzat egokitua)

> 200 m ²	4 Komun gune (lau komun ontzi eta lau konketa)	(horietatik bat mugikortasun urritua eta aulki gurgildunean dabilzan pertsonentzat egokitua)
----------------------	---	--

b.2.- Jendearentzako azalera erabilgarria 30m²-koa edo gutxiagokoa dutenetan, komun gune bakarrak antolatzeko berrikuntzak baimenduko dira; komun gune berria egokitua egon beharko da eta gutxienez komun ontzia eta konketa bana edukiko du.

c.- Familia giroko txokoetan baimendu ahalko da komun gune bakarra jartzea gutxieneko dotazio hauekin: komun ontzia eta konketa. Komun horrek erabilera pribatuko izaera edukiko du eta ez du nahitaz egokitua egon behar.

7 Artikulua. Sukalde eta sukalongoa (office) establezimendu berrietan. Definizioak eta gutxieneko azalerak

a.- Sukaldeak eta sukalongoak (office) jakiak manipulatzeko guneak dira.

a.1.- Sukaldea keak eta usainak sortuko dituzten aparatuak jarri ahal izateko gunea da, esaterako, sukaldeak, parrilak, plantxak, frijigailuak eta antzeko aparatuak. Sukalde-guneak gutxienez 10m²-ko azalera erabilgarria eduki beharko du.

a.2.- Sukalongoa (office) ke eta usain nabarmenik sortzeko aparatuek ez duen gunea da, esaterako, plater berotzaileak, mikrouhinak, labeak eta antzeko aparatuak. Sukalongo-guneak gutxienez, 5m²-ko azalera erabilgarria eduki beharko du.

8 Artikulua. Sukaldeko keen hustuketa

a.- Sukaldeko aparatu guztiak ke-hustuketarako kanpaiaren azpian jarriko dira eta sortutako keak eta usainak ke-hustuketa lokalizatu bidez eraikineko teilatura bideratuko dira. Debehatuta dago sukaldea jartzea edo ustiatzea lokalizatutako ke-hustuketa sistema jarri gabe.

b.- Sortuko diren keak eta usainak lokala dagoen eraikineko teilatura bideratuko dira, eksklusiboa izango den hodi estankoa batetik barrena (tximinia) eta depresio sistemaren bidez. Hodiak dimentsio egokia eduki beharko du hustuketa zerbitzua egokia emateko dagokion aireztatzeko motorraren arabera. Hodiaren estankotasuna eta ziurtagiriaren bidez bermatuko da probak egin ondoren.

c.- Arau orokor gisa, hustuketa hodiak edo tximiniak, gutxienez, metro batean gaindituko du eraikinaren estalkiko isurkia.

d.- Tximiniak etxadi-patio barruan, eraikin nagusiaren ez den eraikin bereko estalki batean. Tximinia jarriko den estalkiaren inguruan etxebizitzako eraikin altuagoak badaude, honako soluzio hauetako bat eman ahalko da bizilagunei eragozpenik ez sortzeko:

d.1.- Babes eremua bermatzea: tximiniaren erdialdetik horizontalean hurbilen dagoen eraikinaren fatxadetara, gutxienez 10 metrokoa izango da (erradial eran neurtuta).

d.2.- Tximinia hori lokalari dagokion eraikin nagusiaren fatxadatik teilatura igotzea edo eraikin nagusia baino altuera handiagoa duen beste eraikin baten fatxadatik bere teilatura.

9 Artikulua. Aire berritzeko instalazioak

a.- Establezimenduko gune guztiak sistema mekaniko bidez aireztatuko dira, ZHAPO eta indarrean dauden legedien irizpideak kontuan izanda.

b.- Establezimenduan egon daitezkeen erabilera komunitarioko hodiak (shunt) ezingo dira erabili eta ondorioz, zigilatua izango dira.

c.- Etxebizitza erabilera nagusia duten eraikinetan ez da onartuko aireztapen naturala. Salbuespen gisa, lurzoru urbanizazinean jartzen diren establezimenduetan onartu ahalko da aireztapen naturala, leiho bidezkoa barne.

10 Artikulua. Fatxaden trataera eta establezimenduen sarbideak

a.- Establezimenduen fatxadek indarrean dauden arauetan jasotako estetika eta isolamendu baldintzak beteko behar dituzte.

b.- Arau orokor gisa, establezimenduko atea gutxienez, 2 metro urrunduko dira hurbilen dagoen ezkarzetetik, beti ere, aplikagarri zaizkien bestelako arauak edo arazoituko zirkunstantziak hori eragozten ez duten heinean.

c.- Orokorrean, atek eraigarriak izango dira, bira-ardatz bertikalarekin; segurtasun arauak besterik exijitzen ez badute, ez dira baimenduko 1,80 metro baino gehiagoko ate eta pasabide libreko baoak fatxadetan.

d.- Ate gidaridun edo tolesgarriak (automatikoak nahiz eskuzkoak) I eta II taldeko establezimenduetan baimenduko dira bakarrik, eta hori, ateen diseinu eta funtzionamenduko ezaugarriak hustuketa, irisgarritasun eta zaratei buruzko araudiak betetzen badituzte.

e.- Leihoak finkoak izango dira, alegia, ireki ezin daitezkeenak. Ez dira sartzen irekitzekoak ez izateko debekuan, barruko edo etxaldeko patioetara ematen duten leihoak, patio bera mantentzeko edo garbitzeko beharrezko direnak; kasu honetan, helburu horrekin erabiliko dira bakarrik, jarduera funtzionamenduan ez dagoen bitartean.

f.- Ez dira baimenduko fokuak eta toldoak fatxadan baimendutako terraza edo beladoreari lotuta ez badaude.

Azken xedapena. Indarrean sartzea eta ordenantza zaharra indar gabe uztea.

a.- Ordenantza indarrean sartzeko, bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako beharko da. Indarrean sartu ondoren, ematen diren lizentzia guztiei aplikatuko zaie.

b.- Halaber, ordenantza hau indarrean sartzen denean balio gabe geratuko da, 1985eko apirilaren 25ean onartu zen *ostalaritza gremioko establezimenduak arautzeko udal ordenantza*.

12.- VILLA NURIA, ARRATE ETA ICIAR EKIPAMENDUKO PARTZELAREN HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA, UDALTAINGOAREN EGOITZA BERTAN JARTZEKO (11-1 AREA -OD MENDILAUTA-). BEHIN BETIKO ONESPENA.

2018H7000012 espedientea

Akordio-proposamena irakurri ondoren, eguneko aztergai hau hizpide hartuta udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta, ondoren, eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi-Zarautz)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2019ko urtarrilaren 28an egindako bileran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea Villa Nuria, Arrate eta Iciar ekipamenduko partzelaren hiri berrikuntzako plan berezia, Udaltzaingoaren egoitza bertan jartzeko (11-1 area -OD Mendilauta-).

Espedientea jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Partzela mugakidea da N-634 foru-errepidearekin (Nafarroa kalea). Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturretako Departamentuak aldeko txostena egin zuen.

Partzela Kostaldeko Legearen eraginpeko eremuaren barruan dago. Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak informatu zuen planak itsas-lurtar jabari publikoa babesteko irizpideak betetzen dituela; Itsasertz zerbitzu probintzialak hala eskatuta, Kostaldeko araudia jasotzen duen plano gehitu egin zaio planari.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zuten.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 14 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”-arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea Villa Nuria, Arrate eta Iciar ekipamenduko partzelaren hiri berrikuntzako plan berezia, Udaltzaingoaren egoitza bertan jartzeko (11-1 area -OD Mendilauta-). Zarauzko udalak sustatu du plana eta ARQUAWA arkitektura estudioak idatzita du.

2019ko urtarrileko datakoa da onartu den dokumentua, baina gehitu egin zaio 2019ko otsaileko 07 planoan -Kostaldeko Araudia-. Honako eranskinak ditu:

- Geologia-geoteknia azterketa (Lurtek, 2018ko urria)
- Soinu inaktuaren analisia (AAC, 2018ko abendua)

Bigarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintza-plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta plan bereziaren ordenantzak. Halaber, lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da behin betiko onespeneren iragarkia.

13.- FINKAK TRUKATZEA ETA DOAN LAGATZEA, ERROTABERRI INDUSTRIA-SEKTOREA ETA SALBERDIN BIZITEGI-AREA SUSTATZEKO

2018H7150002 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	2	(2 Irabazi Zarautz)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2019ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalak konpromisoen hitzarmen bat onartu zuen, Errotaberri, Salberdin eta Irita hirigintza-eremuetan dauden hainbat finka trukatzeko eta doan lagatzeko.

Promociones Salbide SL/Grupo Sorelor SL sozietateak, Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoak eta Zarauzko Udalak 2019ko otsailaren 15ean sinatu zuten hitzarmena.

Geroago, besterentzeak erabaki ahal izateko beharrezko izapideak egin ziren. Hala, besteak beste, jarduera hauek egin ziren:

- Hitzarmenaren berri eman zitzaion bai Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bai Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- Jendaurrean jarri zen Errotaberri sektoreko 2B partzela doan emateko proposamena, eta ez zen alegaziorik jaso.
- 2019ko udal aurrekontuan sartu dira aurreikusitako betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko behar diren kredituak.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak izapidetu du espedientea, udal teknikariek txostena egin dute, eta udal kontu-hartzaileak fiskalizatu du.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, 19 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"-arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Baimentzea Errotaberri sektoreko 2B udal partzelaren doako lagapena, Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoaren alde. 1.768.184,88 eurokoa da partzelaren tasazio-balioa.

Bigarrena.- Onartzea Irita arean dagoen eta Beterri Kostako Industrialdea SAren jabetzakoa den 911 m²-ko finka baten doako lagapena, Zarauzko Udalaren alde. 181.712,01 eurokoa da finkaren tasazio-balioa.

Hirugarrena.- Baimentzea Zarauzko Udalaren eta Promociones Salbide SL/Grupo Sorelor SL sozietateen artean egingo den finken truke hau:

a.- Zarauzko Udalak trukearen bidez transmitituko dituen finkak: Salberdin areako R10, R11, R12 eta R13 partzelak (kasu guztietan, higiezin gunearen 1 zenbakiko elementua). 6.497.821,04 eurokoa da, guztira, horien behin betiko tasazio-balioa; eta hori hala da, Salberdineko birpartzelazio-proiektuaren likidazio-kontuaren saldoa aldatu egin delako, behin betiko onespeneraren aurkako berraztertze-errekurtsoak ebatzi ondoren.

b.- Promociones Salbide SL/Grupo Sorelor SL sozietateek trukearen bidez transmitituko dituzten finkak: Errotaberri sektoreko 3C (% 46,15), 3D, 4A, 5, 6, 7A, 9 eta 16 partzelak. 5.697.645,99 eurokoa da, guztira, horien tasazio-balioa.

Trukatzeak diren finken arteko balioaren aldea 800.175,05 eurokoa da, Zarauzko Udalaren alde. Hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, 325.000 euroren ordainketa atzeratu ahal izango da, gehienez ere 2019ko abenduaren 31 arte.

Laugarrena.- Baimentzea Zarauzko Udalaren eta Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoaren artean egingo den finken truke hau:

a.- Zarauzko Udalak trukearen bidez transmitituko dituen finak: Errotaberri sektoreko 3A, 3C (% 46,15), 3D, 4A, 5, 6, 7A, 9 eta 16 partzelak. 6.164.840,23 eurokoa da, guztira, horien tasazio-balioa.

b.- Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoak trukearen bidez transmitituko dituen finak: Irita arean jabetzan dituen finka guztiak (39.127,62 m²), dohainik emango dena izan ezik. 7.804.395,09 eurokoa da, guztira, trukatu diren finken tasazio-balioa.

Trukatzeak diren finken arteko balioaren aldea 1.639.554,86 eurokoa da, Beterri Kostako Industrialdea SAren alde. Sozietate publikoak aukera eman dio Udalari aipatutako diru-kopuru osoaren edo zati baten ordainketa atzeratzeko.

Bosgarrena.- Alkatetzak izango du doako lagapenen eta trukeen eskritura publikoak sinatzeko ahalmena, Udalaren izenean, eta 2019ko urtarrilaren 31n onartutako hitzarmenaren klausuletan xedatutakoaren arabera.

Eskritura sinatzen duenean, Alkatetzak ahalmena edukiko du Beterri Kostako Industrialdea SArekin adosteko Udalak sozietate publikoari egin behar dion ordainketa osoaren edo zati baten atzerapena (gehienez ere, 2019ko abenduaren 31 arte).

Seigarrena.- Hitzarmenean xedatutakoaren arabera, Zarauzko Udalak honako hauek fakturatuko ditu:

a.- Promociones Salbide SL/Grupo Sorelor SL sozietateei: Salberdin areako R10, R11, R12 eta R13 partzelek urbanizazio-kuotetan ordaindutako zenbatekoak.

b.- Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoari: Errotaberri sektoreko 3A partzelak urbanizazio-kuotetan ordaindutako zenbatekoak.

14.- 24/2018 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA – ABENDUAREN 21ekoa, SEKTORE PUBLIKOAREN ESPARRUAN ORDAINSARIEN ARLOKO PRESAKO NEURRIAK ONARTZEN DITUENA – ONARTZEAREN ONDORIOZ, ORDANSARIAK IGOTZEA.

2019P3990010 espedientea

2018ko abenduaren 27an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abenduaren 21ko 24/2018 Legegintzako Errege Dekretua, sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko presako neurriak onartzen dituena. Legegintzako Errege Dekretu horrek, besteak beste, langile publikoen ordainsariak arautzen ditu, eta tokiko administrazioan aplikatu behar da.

3.2 artikulua honela dio:

"2019. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino % 2,25 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinatasunari begira. Ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko gizarte ekintzako gastuak kontuan hartuko; eta horiek 2019an oro har ezingo dute 2018ko gastuekiko igoerarik izan. Alde horretatik, honako hauek dira gizarte ekintzako gastuak: egindako lanagatik sortutako kontraprestazioak ez diren bestelako etekinak, osagarriak edo hobekuntzak, horien helburua baita sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen egoera pertsonalen ondoriozko behar jakin batzuei erantzutea.

Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera 2018an % 2,5era iristen bada edo ehuneko hori gaintitzen badu, 2019ko uztailearen 1etik aurrera beste igoera bat egongo da ordainsarian, hain zuzen, 0,25ekoa. Hazkundera adierazitako % 2,5ekoa baino txikiagoa bada, igoera proportzionalki jaitsiko da ehuneko 2,5 horrekiko murriztu denaren arabera. Beraz, oro har igoerak honako hauek izango dira:

BPG 2,1ekoa: % 2,30
BPG 2,2koa: % 2,35
BPG 2,3koa: % 2,40
BPG 2,4koa: % 2,45..."

Halaber, Udalbatzarrari dagokio funtzionarioen ordainsari osagarri finkoen eta aldizkako zenbatekoa onartzea, bai eta lanpostuen zerrendan aldaketak egitea ere (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua).

Hori guztia ikusi eta kontuan hartuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Zarauzko Udaleko enplegatuei ordainsariak % 2,25 igotzea, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko, eta beste % 0,25 uztailearen 1etik aurrerako ondorioekin, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera 2018an % 2,5era iristen bada edo ehuneko hori gaintitzen badu.

Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera adierazitako % 2,5ekoa baino txikiagoa bada, igoera proportzionalki jaitsiko da ehuneko 2,5 horrekiko murriztu denaren arabera. Beraz, oro har igoerak honako hauek izango dira:

BPG 2,1ekoa: % 2,30
BPG 2,2koa: % 2,35
BPG 2,3koa: % 2,40
BPG 2,4koa: % 2,45..."

Bigarrena.- Ordainsarien igoeraren ondorioz, beharrezko aldaketak egitea Zarauzko Udaleko lanpostuen zerrendan.

15.- ZENBATEKO OROKORRA ESLEITZEA (PRODUKTIBITATE OSAGARRIA)

2019P3990011 espedientea

Udalaren zerbitzuan ari diren langileek produktibitate osagarria jaso ahalko dute 2018. ekitaldirako ezarritako helburuen lorpenari lotutako etekinak saritzeko.

Ordainsari horren ordainketak ez du zerikusirik Estatuko Aurrekontu Orokorretan 2019. ekitaldirako ezarritako igoerekin, hauetatik kanpo dago.

Produktibitate osagarri horri ekin ahal izateko beharrezkoa da lan-jarduna eta produktibitatea ebaluatzeko sistema ezartzea langileen motibazio, efikazia eta efizientzia ahalik eta handiena lortzearren. Dena den, lanbide-karrera horizontalean aurrera egiteari lotutako lan-jarduna ebaluatzeko sistemak ez ditugu, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren (TREBEP) 20. artikuluan jasotzen direnak, eta geroko Euskal Enplegu Publikoaren Legeak garatzeko dituenak.

Lege-garapen hori eta horrek berekin dakarren garapena ebaluatzeko sistema izan arte, produktibitate osagarria kalkulatzeko aukera izan daiteke, udal langileak guztien ekarpen maila bezalako faktoreak txertatzea, hala nola 2015-2019 Legegintzaldiko Planean jasotzen diren helburu estrategikoak lortzea.

Legegintzaldiko Plan horretan Udalak helburu estrategikoak zein izango diren zehaztu ditu agintaldi honen amaierara arte, hala nola hainbat aukera horiek burutzeko eta horren guztiaren ondoriozko ekintzak, arduradun politikoak eta teknikoak zein izango diren zehaztuta. Aldi berean, aukera ematen du lortu nahi diren helburuen jarraipena, ziurgabetasuna gutxituz eta komunikazioa ahalbideratuz erakundeari nahiz herritarrei begira.

Horrek guztiak berekin dakar udal sail eta azpisailtako langileen arteko lankidetzaren eta lana helburu estrategiko nagusiak lortze aldera.

Hori dela-eta, Giza Baliabideetako zinegotziak, kontuan izanda programa bakoitzerako ezarritako helburuen betetze-mailagatik dagokion ordainsariaren egokitzapena produktibitate-osagarriaren bidez formalizatzen dela eta 2018. ekitaldia ixtean I. kapituluaren aurreztu dela, proposatzen du indarrean dagoen aurrekontuaren I. kapitulutik 331.000 euro bideratzea produktibitateko ordainsaria ordaintzera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte zerbitzuak eman dituzten udal langileen artean banatzeko.

Horren haritik, 861/1986 EDaren 5.5 artikulua xedatutakoaren babespean, non bertan ezartzen den Tokiko Administrazioaren Funtzionarioen ordainsarien sistema, Udalbatzari dagokio aurrekontuan zehaztea zein den produktibitate osagarria emateko bideratutako diru-kopuru guztia, hala nola irizpideak ezartzea banakako esleipena egiteko enplegatuak bere lana egiten duen interes, ekimen edo ahaleginaren mailaren eta lortutako etekinaren edo emaitzen arabera.

Ondoren, programa edo departamentu ezberdinetan diru-kopurua banatzeko eskumeneko organoa Alkatea da, eta, baita produktibitate osagarri indibidual hori emateko ere (861/1986 EDaren 6. atalaren 5. artikulua), betiere Udaltzarak ezarri behar dituen aipatutako irizpideen eraginpean.

Irizpide horiek ezartzeko, esan bezala, oinarri izan behar dutenak enpleguak bere lana egiteko duen interesa, ekimena edo ahalegina eta lortutako etekina edo emaitzak, Langile Batzordearekin negoziatzeari ekin zaio.

Azaldutakoa kontuan hartuta,

Kontu-hartzailearen eta Giza Baliabideetako teknikariaren txostenak aztertuta, Giza Baliabideetako zinegotziak proposatuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrek, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- Xedatzea gehienez 331.000 €ko produktibitate-osagarria ordaintzeko udal honetan 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte beren zerbitzuak eman dituzten udal langileei.

Bigarren.- Osagarri horren ordainketa banatzeko beharrezko izango da negoziazio prozesuan dauden irizpideak Udaltzarak onartzea.

Hirugarren.- Xedatzea 331.000 euroko gastua honako aurrekontu-aplikazioen kontura: (...)

Laugarren. Zarautz Lur SAK dagozkion erabakiak hartu beharko ditu zentzu berean.

16.- ZARAUZKO UDAL LANGILEEN LAN-BALDINTZAK HOBETZEA

2019P3990012 espedientea

Azken araudi aldaketen ondorioz langileen derrigorrez erretiratzeko adina handiagoa denez, Zarauzko Udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (Udalhitz) 96. artikulua, *Erretiro aurreratuen primak* buruzkoa egokitu behar da, aipatutako artikulua gaur egun duen idazkerari amaieran ondorengo paragrafoa gehituz:

“Aurreko hileko soldata horiek bat datoz derrigorrezko erretiroa hartzearekin 65 urte betetzean. Erretiroa eskatu duen langilea derrigorrez erretiratzeko adina handiagoa denean, adin eta epe berriei egokituko zaizkie hileko kopuru horiek.”

Artikulu honen gainerako zatiak mantendu egingo dira Udaltzarako emandako idazkeraren arabera.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Langileen Batzordearekin negoziatuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Zarauzko Udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (Udalhitz) 96. artikulua idazkera osatzea onartzea, ondoren adierazten den moduan:

«96. artikulua. Erretiro aurreratuarentzako primak.

Primaren kopurua eskala hau jarraituta kalkulatu da, betiere urteko ordainsari gordinen erreferentzia bezala hartuta, eta urteko ordainsari hori hilabete hori hainbanatu eta gero:

Adina	Hilabete kopurua
60tik 61 urtera	21 hilabete
61tik 62 urtera	17 hilabete
62tik 63 urtera	12 hilabete
63tik 64 urtera	9 hilabete
64tik 65 urtera	6 hilabete

Aurreko hileko soldata horiek bat datoz derrigorrezko erretiroa hartzearekin 65 urte betetzean. Erretiroa eskatu duen langilea derrigorrez erretiratzeko adina handiagoa denean, adin eta epe berriei egokituko zaizkie hileko kopuru horiek.»

17.- ZARAUZKO UDALAREN TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIA –2015eko APIRILAREN 17koa, KONTRATUA TXINTXILIK SL ETA ASTIARAN SL ENPRESEI ESLEITZEKO – ETA 2016ko MAIATZAREN 12an SINATUTAKO KONTRATUA BERRIKUSTEKO ESKAERA EZ ONARTZEKO ETA, HALABER, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAREN TESTU BATEGINAREN 223.g) ARTIKULUAREN KAUSA DELA-ETA, SUNTSIARAZTEKO ESKABIDE SUBSIDIARIOA EZESTEKO EBAZPENA.

2013I1200011 espedientea

I. AURREKARIAK

A) Baldintza agiriak onartzea

Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak, 2014ko urriaren 29koak, onartu egin zituen Astiko jolasgunean taberna-jatetxearen eraikin berria eta aisialdiko instalazioak egiteko eta hori guztia ustiatzeko herri-lanen kontzesiorako kontratuaren Administrazio Klausula Partikularren Agiria (AKPA) eta Baldintza Teknikoen Agiria (BTA) (espediente zenbakia: 2013 I 120 0011).

AKPAk herri-lanen kontzesio kontratutzat kalifikatu zuen kontratazioa. Horrenbestez, kontratazio hori lotu egiten zitzaion Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuari

AKPAko Xedapen Orokorretako 4. klausulan jasotzen denaren arabera, Udalak ahalmena edukiko zuen azkenean aurkezten diren proiektuetan aldaketak egin daitezela eskatzeko.

Eskaintza osatu behar zuten dokumentuen artean, eskatzen zen lizitatzailleak eraikin berriaren aurreproiektua aurkeztea; horri gehienez 24 puntu emango zitzaizkion. Aisialdi gune berriko aurreproiektua ere aurkeztea eskatzen zen, eta horri gehienez 10 puntu emango zitzaizkion. Hori guztia AKPAko 9.2 klausulak dioenari jarraiki.

AKPAko 17. klausulak, kontzesiodunaren betebeharrei buruzkoak, kontzesiodunaren betebeharren artean honakoa jasotzen zuen 1. apartatuan: *“Kontratu honen xedean deskribatutako lanak egitea (bai derrigorrez egin beharrekoak bai lizitatzaille esleipendunak egitea proposatu dituenak) eta bermatzea lan horiek egitean zorrotz jarraitu direla bai onartutako proiektuan jasotakoa, bai proiektua interpretatzean Udalak kontratistari emandako jarraibideak, eta horiek guztiak kontratuaren epe eta baldintzetan egiten direla, beste aldaketarik gabe (behar den bezala baimendutakoak izan ezik)”*

Era berean AKPAko 20. klausulak honakoa ezartzen zuen: *“Kontzesioaren epea 30 urtekoa denez, interes orokorreko obrak edo instalazioak egitea erabaki daiteke. Horien zenbatekoa gehienez kontzesio honen xede diren obrak eta instalazioak jartzeko kostuen % 50 izango da. Kontzesioaren kanona eta Udalaren ekarpena ere % 50ean aldatu ahalko da, oreka ekonomiko eta finantzieroa bermatzeko.*

Herri-lanaren aldaketa bat etorriko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 250. artikuluan xedatutakoarekin.

Eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 258. artikuluan xedatutakoak arautuko du kontzesioaren oreka ekonomikoari eragiten dion edozein aldaketa.”

Bestetik BTAk, zehazki *“2.- Kontzesioan sartzen dena”, “2.1.- Taberna/jatetxe modura erabiliko den eraikin berriaren proiektua idaztea”* dioenean, honakoa ezarri zuen: *“Kontratua esleitzen denean, taberna/jatetxe modura erabiliko den eraikin berriaren Gauzatze Proiektua idatziko du esleipendunak, alde aurretik definitutako gutxi gorabeherako beharren programarekin bat etorritik eta indarrean dagoen araudia betetzeko egin behar diren egokitzapenekin.”* Azpiepigrafe berean jasotzen zen, halaber, honakoa: *“Proiektu horrek honako hauek izango ditu bere baitan: **udal onespena emateko** legezko tramiteak eskatzen dituen agiri eta zehaztapen guztiak eta obrak egiteko plan bat. Plan horretan epe batzuk identifikatuko dira, lanak hasteko, bukatzeko eta horiek erabiltzen hasteko.”*

Beharren programari dagokionez, 5. baldintzak honakoa ezartzen zuen: *“[...] Indarrean dagoen ZHAPO betetzeko, aisi guneko eremu guztien azaleraren baturak (jatetxe/taberna, terraza...) derrigorrez ezin izango du 2.250 m²ko azalera gainditu. [...] partzelaren egungo egoeraren planoaz azaltzen da”.*

Ondoren, baldintza berean, *“gutxi gorabeherako azalera erabilgarriak m²-tan”* izeneko taula jasotzen zen. Aipatu behar *“BARRUKO ZONA GUZTIRA (banaketak kontatu gabe)”* 150 m²-koa zela, eta *“KANPOKO ZONA ESTALIA-TERRAZA”*, berriz, 70 m²-koa, guztira 220 m² eginez horrenbestez. Dena den, *“[...] II. eranskinean eraikin berriaren kokapenaren proposamena aurkeztu da. Kalkuluen arabera, azalera gehienez ere 300 m²-koa izango da, eta hor proiektatuko da eraikin berria [...]”.*

Ohar egin behar da beharren programako zehaztapenak, erabilitako terminologia ikusirik, orientazio modukoak baino ez zirela.

BTako 6. baldintzan ezarri zen ezen gauzatze proiektuak udal zerbitzu teknikoek emandako aginduak jarraituko zituela, eta zerbitzu teknikoek *“egoki iruditzen zaizkien aldaketak sartu”* ahal izango zituztela.

Gainera, proiektua baldintza agirian definitutako beharren programarekin bat etorritz idatzi behar zen -ez da aurreproiektua aipatzen-.

BTAko 11. baldintzak zehazten zuenez, eraikin berriko obrak gauzatze proiektu teknikoan definituko ziren -Udalak BTAko baldintzen eta lehen aipatutako AKPAko klausulen arabera onartu behar zuen hori-, eta proiektu horretan definitu bezala egin behar zuen obra enpresa kontzesiodunak, nahiz salbuespen gisa eta aipatu proiektuari Udalak onespenera eman ondoren udal zerbitzu teknikoek aldaketak egitea erabaki zezaketen "*beharrek hala eskatzen badute eta salbuespen modura*" (BTAko 11. baldintzako bigarren paragrafoa).

B) Eskaintza eta dokumentazioa eskatzea

Ezarririk epearen barnean, baterako eskaintza aurkeztu zuten Txintxilik, SL eta Construcciones Astiarian, SLk. Kontratazio mahaiak, 2015eko otsailaren 27an egindako bilkuran, proposatu zuen kontratua Txintxilik, SL eta Construcciones Astiarian, SL enpresei esleitzea eta, proposamen hori ikusirik, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 6an, erabaki zuen enpresa horiei eskatzea baldintza agirietan ezarririk baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa.

C) Kontratua esleitzea

Dokumentazio errekerimendua eginik, Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko apirilaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Txintxilik, SL eta Construcciones Astiarian, SLri esleitzea Astiko jolasgunean taberna-jatetxearen eraikin berria egiteko eta aisialdiko instalazioak egiteko, eta hori guztia ustiatzeko, obraren kontzesio kontratua.

Akordio horretan jaso zen, beste baldintza batzuen artean, kontratua sinatzen zenetik gehienez 3 hilabeteko epean aurkeztea taberna-jatetxerako obra eta jarduera proiektua eta aisialdi guneko obra edo hornidura proiektua aurkeztea. Puntu horretan, proiektu horiek Udalaren onspena behar zutela gogorarazten ziren Zarauzko Udalak esleipendunei.

Era berean, esleipendunei eskatu zitzaizkien 15 eguneko epean eratzeko kontratua sinatuko zuen kapital sozietatea.

D) Kontratua formalizatzea

Sortu berriko konpainia aipatua eratzeko izapidea baterik, 2015eko maiatzaren 12an sinatu zen Zarauzko Udalaren eta Txintxiliken arteko kontratu administratiboa.

2015eko maiatzaren 12an sinatutako kontratuaren bigarren estipulazioan hitzartu zen ezen, kontratua sinatzen zenetik aurrera, esleipendunak hiru hilabeteko epea zuela taberna-jatetxerako obra eta jarduera proiektuak eta aisialdi guneko obra edo hornidura proiektua aurkezteko (proiektu horiek Zarauzko Udalaren onspena beharko zuten). Udalak, gainera, azkenean aurkezten diren proiektuetan aldaketak sartzeko eskatu ahal izango zuten.

E) Geroko jarduerak

2015eko maiatzaren 7an, Txintxilikek gauzatze proiektua aurkeztu zuen, eta udal baimena eskatu zuen taberna-jatetxea eta aisialdiko instalazioak eraikitzeko. Geroago, gauzatze edo egikaritze proiektuaren dokumentazio osagarria aurkeztu zuen Txintxilikek.

Udalaren adostasuna izan baino lehen, 2015eko maiatzaren 28an Txintxilikek baimena eskatu zuen lehendik zegoen eraikina eraisteko eta lurra eraikin berrirako prestatzeko, hain zuzen lanak aurreratu ahal izatearren. Ez zitzaion eraiste baimenik eman.

Txintxilikek aurkeztutako gauzatze edo egikaritze proiektuaren azterketan zalantzak agertu ziren, Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari eta kontratuan eta baldintza agirietan aurreikusitako baldintza teknikoei egokitzen ote zitzairen. Hirigintza arloan eskumena duten zerbitzuei txosten bat eskatu zitzairen, Txintxilikek aurkeztutako gauzatze proiektuari buruz, eta 2015eko irailaren 25eko dataz eman zuten eskatua. Bertan, eta besteak beste, adierazten zuten zalantzak zeudela proiektuak Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta kontzesioa kontratatzeke baldintza teknikoak betetzen ote zituen, eta konklusio hauek ateratzen zituen:

1. Kontratazio mahaiak edo informazio batzordeak, baldintza agirietan eta kontratuan Udalari ematen zitzaion onarpen ahalmenaren babesean, irizpideak finkatu behar zituen (i) eraikinaren okupazio eta azalera erabilgarriari buruz, (ii) errekarrekiko tarteari buruz (ii), zuhaitz eta abentura parkeari buruz eta (iv) eraikinaren estetikari buruz; eta
2. Atal hori bideratzen ez zen bitartean, ez zen egingo proiektuaren eta arau teknikoaren bateragarritasunari buruzko txostenik.

2015eko irailaren 25eko txostenaren ondotik, zehazki 2015eko abenduaren 17an, Txintxilikek idazki bat aurkeztu zuen, Zarauzko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduta. Horretan, ordura arte emandako ekintzen (esleipen eta kontratuaren) aldaezintasuna aipatzen zuen eta, alderdi biak behartuta egonik kontratuan hartutako konpromisoak betetzera, aditzera ematen zuen ezen, betebeharrak horren babesean, eta eskatutako obra-lizentzia emana zenez isiltasun positiboarengatik, berehala hasi behar zituztela Udalarekin sinatutako kontratuak jasotzen zituen lanak, asmoa baitzuten sinatutako kontratuaren xedea eta kontzesioa emateko akordioaren xedea gauzatzea.

2016ko martxoaren 16an, Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuak, alkate-udalburuak eskaturik, txostena prestatu zuen, batetik analizatzeko Txintxilikek aurkeztutako aurreproiektua Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari egokitzen zitzaion eta, bestetik, aurreproiektu hori baldintza agiriei egokitzen zitzairen aztertzeko. Zerbitzu horien konklusioen arabera:

Aurreproiektuak ez ditu betetzen baldintza agiriak, azalerari eta okupazioari dagokienez. Baldintza agirietan ez dago inolako justifikazio edo salbuespenik, aipatu okupazioa handitzea ahalbidetzen duenik, are gutxiago hain proportzio handian egiteko (% 33 gehiago).

Baldintza agiriak bere ere ez lukete beteko Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 6.5.19 artikuluko 4. paragrafoa, egungo eraikigarritasun fisikoa bikoiztea proposatzen baita. Aurreproiektuari buruz aipatu moduan, plan berezi bat izapidetu edo, behintzat, aurreikusi behar zen, hain igoera handia justifikatu ahal izatearren. Eraikigarritasun fisikoa ezin da horrela handitu egikaritze proiektu baten bitartez.

2016ko apirilaren 15ean, Zarauzko Udalaren alkate-udalburuak, Txintxilikekin negoziatu eta egiaztatu ondoren ezinezkoa zela aurkeztutako proposamena baldintza agirietan eta indarrean den araudian jasotako aurreikuspenetara egokitzeari buruzko akordiorik lortzea, Txintxiliki jakinarazi zion aztertzen ari zela 2015eko apirilaren 17ko esleipen akordioa ofizioz berrikusi ahal izateko izapideak abiatzeko aukera.

Txintxilikek, 2016ko maiatzaren 6ko idazkiaren bitartez, eta 2016ko apirilaren 15eko komunikazioari erantzunez, esan zuen esleipena goitik behera egokitzen zitzaizela baldintza agiriei eta bestelako arau aplikagarri guztiei, berehala ordainduko zutela kanona, eta 2016ko

maiatzaren 20an jasotzen ez bazuen zegokion prozedura abiaraztea ekarriko zuen jakinarazpenik, obrak hasiko zirela. Era berean, erakunde esleipendunak adierazi zuen kanona ordainduko zuela, 2016ko maiatzaren 14a baino lehen jaso ezean kanona ez ordaintzeko posibilitateari buruzko adierazpen garbirik. Erasota dago Txintxilikek ordainketa bat egin zuela 2016ko maiatzaren 14an, 7.000 eurokoa eta kanon kontzeptuan, baina ez zuen obra abiatu.

Alkate-udalburuak 2016ko apirilaren 15eko bere idazkian aipatutako ofiziozko berrikuspena baztertuta geratu zen, eta 2016ko ekainaren 9an, Hirigintzako eta Ingurumeneko Zerbitzuak 2016ko martxoaren 16an emandako txostena ikusirik, alkate-udalburuak ebazpena eman zuen, horren bitartez Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuari eskatuz plan berezi bat idazteko aukera baloratzea, bertan jasotzearen Astiko jolasgunean taberna-jatetxearen eraikin berria eta aisialdiko instalazioak egiteko eta hori guztia ustatzeko herri-lanaren kontzesioa kontratatzeko baldintza agirietan aurreikusitako eraikigarritasuna.

2016ko ekainaren 23an Txintxilikek instantzia bat aurkeztu zuen Zarauzko Udalaren Erregistro Orokorrean; horretan ohar egiten zuen eraitsi egin behar zituela lehendik zeuden eraikinak (komunak izan ezik), eta eskatzen zuen argindar eta ur harguneen kokapenari eta horien egoerari buruzko informazioa eman zekiola.

Alkate-udalburuak 2016ko ekainaren 28an erantzun zion instantziari, esanez (i) ezin zituela eraiste lanak egin, horretarako baimenik ez baitzen eman, (ii) ez zela hirigintzako legedia betetzen eta (iii) Zarauzko Udalaren asmoa taberna-jatetxe berria eraikitzea zela, baina baldintza agirietan aurreikusten zen gehieneko azalera emanez horri. Horri dagokionez, alkate-udalburuak aditzera ematen zion Txintxiliki beharrezko jarduketak egiten ari zirela eta, zehazki, Hirigintza Sailari plan berezi bat prestatzea eskatu zitzaioela, baldintza agirietan aurreikusitako eraikigarritasuna ahalbidetzearen. Azkenean, erasota lagatzen zuen ezen, aurretiko jarduketak gauzatu bitartean, ez zirela onartuko taberna berriko obrak, eta ez zela baimenduko lehendik zeuden eraikinak eraistea.

Txintxilikek 2016ko uztailaren 20an erantzun zuen, idatziz. Horretan berriro adierazi zuen kontratua indarrean zegoela, bete beharrezkoa zela eta asmo irmoa zutela kontratuan jasotako lanak egiten segitzeko. Zarauzko Udalarari eskatzen zion, halaber, hodi eta zerbitzuen kokapenari lotutako alderdi teknikoari buruz egin galderei erantzutea.

2016ko uztailaren 26an Zarauzko Udalak, batetik, ukatu egin zuen Txintxilikek eskatutako obra-lizentzia (ukatze ekintza administratiboa irmo bihurtu zen, ez baitzoten errekurtsorik jarri) eta, bestetik, erabaki zuen hasierako onespina ematea 18. eremuko -Asti Kirolgunea- aisialdi gunearen Hiri Berrikuntzako Plan Bereziari (plan berezia).

Hasierako onspen horren eraginez, Zarauzko Udalak eta enpresa esleipendunak zenbait bilera egin zituzten, akordioa lortzen eta sortutako aldeak bideratzen saiatzearen. Testuinguru horretan, eta plan berezi horren jendaurreko epean zehar, Txintxilikek alegazio idazki bat aurkeztu zuen 2016ko irailaren 7ko dataz. Enpresak alegatu zuen ezen, bazirudienez plan bereziak argitu egin behar zuela kontratua egikartzeko unean sortzen ari zen segurtasun juridikorik eza, ez zuela erreparorik, nahiz eskatzen zuen handitzea aipatu planak kontratuaren xede ziren instalazioak kokatzeko jasotzen zuen eremua, eta esleipenean eta kontratuan aurrekusiari egokitzea.

Zarauzko Udalean hirigintza arloko eskumenak dituen zerbitzuak, 2016ko irailaren 23an, txostena eman zuen, Txintxilikek aurkeztutako alegazio idazkiari buruz; horretan, eta Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearekin bat, azpimarratu zuen ezen espazio librea zela nagusi, eta ez eraikuntzen espazioa, eta iritzi horren babesean, esaten zuen plan berezian taberna-jatetxea

eraikitza bideratutako azalera behar beste handikoa zela jada, lehendik zegoenarekin alderatuz gero. Dena den, ondorioztatzen zuten ezen eraikigarritasuna pixka bat handitzea ulergarria izan zitekeela, kontratuaren esleipenak sorrarazitako egoera berezia ikusita.

2016ko urriaren 27an, Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak plan berezia behin betiko onartzea erabaki zuten, neurri batean baietsirik Txintxiliken alegazioa, eta gehieneko eraikigarritasun fisikoa 300 m²-tik 330 m² eraikitara igoz, kanpoaldeko terrazakoak ere barne, estaliz gero. Gehieneko okupazioa ere igo egin zen, 300 m²-tik 330 m²-ra, eta gehieneko lerrokadurak zehaztu ziren.

Osoko Bilkuraren akordio hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko azaroaren 15ean, eta prentsan atera zen urte bereko azaroaren 17an.

2016ko irailaren amaieraren eta 2017ko otsailaren arteko epean, negoziazio prozesu bat abiatu zen Zarauzko Udalaren eta Txintxiliken artean, hain zuzen ere kontratua gauzatzearen inguruan sortutako arazoari irtenbidea emango zion akordioa lortzen saiatzearen. Jarrerak itxura batean hurbildu zirelarik, Zarauzko Udalak akordio proposamen bat idatzi zuten, eta 2017ko otsailaren 6an Txintxiliki jakinarazi zion; akordio horrek kontratua aldatzea jasotzen zuten, (i) onartutako plan bereziak definitutako esparruan kokatzearen kontratua egikaritzea, (ii) kontratuaren iraupen epea handitzearen eta (iii) hornidura eta eroanbideei (elektrizitate, ur bero, gas eta saneamenduari) buruzko zehaztapenak finkatzearen.

Bitartean, 2017ko urtarrilaren 11n Txintxilikek administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu zuten Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusian, plan bereziaren behin betiko onarpenaren kontra.

Zarauzko Udalak prestatu eta 2017ko otsailaren 6an Txintxiliki jakinarazitako proposamenak ez zuten azken honen onespenez jaso; onspen falta horretarako argudio nagusia zuten plan berezia kontratuaren eta esleipenaren edukiaren kontra zihoala, hau da, indarrean zeuden eta alderdientzat bete beharrekoak ziren ekintza administratibo batzuen kontra. Horretaz gain, Txintxilikek errepikatu egiten zuten kontratua esleituta zegoen moduan egikaritzeko asmoa. Jarrera hori aditzera eman zion, gainera, Zarauzko Udalari, 2017ko otsailaren 27ko idazkiaren bitartez.

2018ko irailaren 10ean, Zarauzko Udalaren prozesuko ordezkartzaren bitartez 364/2018 zk.ko epaia jakinarazi zen, 2018ko uztailaren 27koa, Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sekzioak 19/2017 prozedura arruntean emana (2018ko uztailaren 27ko epaia). Salak ezetsi egin zuten Txintxilikek plan bereziaren kontra aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsioa, funtsean ondoko arrazoioek harturik oinarri:

1. Aurkaratzea plan berezira mugatzen zen, prozesutik kanpo geratzen zirela (i) kontratua, (ii) obrak hasteko ukatutako hirigintzako lizentzia eta (iii) kontratuaren balizko ez gauzatzea (2018ko uztailaren 27ko epaiko zuzenbideko laugarren oinarria).
2. Plan bereziak Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorak eman lege euskarria zuten, eta estaldura xehatua eman nahi zion hirigintzaren eremuan Txintxilikekin sinatutako kontratuari; kontratu horrek ez zekarren *eraikina merkataritza-sozietateak nahi zituen neurriekin egitea baimentzea eta, horrenbestez, ezin da horretan bidezko konfiantzaren eta norberaren egintzen printzipioen inolako urraketarik ikusi, ezta botere desbideratzerik ere planaren onarpenean, duen xedea ikusita* (2018ko uztailaren 27ko epaia, 7. orrialdea, zuzenbideko laugarren oinarria).
3. Administrazioak *ius variandi* ahalmena balia dezake lurzoruaren antolamenduan, eta eskuratutako eskubideak zein Administrazioak osatu dituzkeen hitzarmenak –edota kontratu sinatuak– ezin dira ahalmen hori arrazoiz eta arbitrariotasunik gabe erabiltzeko oztopo izan; dena

den, Administrazioa hitzartutik aldentze horrek kalte ordainak eragin ditzake beste esparru batzuetan (2018ko uztailaren 27ko epaia, 7. orrialdea, zuzenbideko laugarren oinarria).

2018ko uztailaren 27ko epaia irmo bihurtu zen 2018ko urriaren 25ean, ez baitzioten errekurtsorik jarri.

Kontratuan aurreikusten den urteko kanonaren ordainketari dagokionez, aipatu behar Txintxilikek ez zituela ordaindu 2017 eta 2018ko ekitaldiei zegozkien kanonak.

F) Errekerimendua Txintxiliki

Testuinguru horretan Zarauzko Udalak, 2018ko uztailaren 27ko epaia dagoeneko irmoa zela ikusirik, 2018ko azaroaren 13an Txintxiliki jakinarazi zion alkate-udalburuak 2018ko azaroaren 12an egin errekerimendua, enpresa horrixeko zuzendua, hain zuzen ere hiru hilabeteko epean aurkez ziezazkion Udalari taberna-jatetxearen obra eta jarduera proiektuak eta jolasgunerako obra edo hornidura proiektua, 18. Eremuko -Asti Kirolgunea- Aisialdi Gunearen Hiri Berrikuntzako Plan Berezian jasotako baldintzei eta kontratua esleitzeko oinarria izan zien baldintza teknikoaren agiriko bestelako aurreikuspenei egokituta.

Aipatu hiru hilabeteko epe horren barnean, zehazki 2019ko otsailaren 12an, Txintxilikek idazki bat aurkeztu zuen -ebazpen honen eragilea den idazkia-, honakoak eskatuz bertan: batetik, ofizios berrikustea Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko apirilaren 17an hartutako akordioa, kontratua esleitzekoa, eta, ondorioz, baita kontratua bera ere, kalte ordaina aitortzearekin batera; eta, bestetik, eta subsidiarioki, kontratua suntsiarazteko espedientea hasia, SPKLTBko 223. g) artikuluan xedatua oinarrituta, ezinezkoa delako prestazioa kontratua esleitu zen baldintzetan gauzatea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. SPKLTBko 31. artikulua Administrazio Publikoaren kontratuen baliogabetasun kasuak finkatzen ditu, eta xedatzen du kontratu horiek baliogabeak izango direla *“kontratua prestatzeko egintzaren bat edo esleipen egintza baliogabea bada, hurrengo artikuluetan aipatzen diren administrazio zuzenbideko edo zuzenbide zibileko arazoietako bat tarteko”*.

SPKLTBk aurreikusten dituen administrazio zuzenbideko kasuen artean, 32. artikuluko a) letran ezarria azpimarratu behar da, honakoa baitio: *“Hauek dira administrazio zuzenbideko deuseztasun kausak: a) Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 62.1 artikuluan aipatutakoak [gaur egun, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko (APEL) 47.1 artikulua ordezkatu du].”*

APELeko 47.1 artikulua honakoa dio:

“Administrazio publikoaren egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan:

- a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete.*
- b) Gaiagatik edo lurraldeagatik argi eta garbi eskumenik ez duen organoren batek eman baditu.*
- c) Ezinezko edukia badute.*
- d) Zigor-zuzenbideko arau-hauste badira edo halako baten ondorioz eman badira.*
- e) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira.*
- f) Funtsezko betekizunak bete gabe ahalmen edo eskubide batzuk eskuratzeko bide ematen duten egintza espresu edo presuntziozkoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak.*

g) *Lege mailako xedapen batean halakotzat jotako beste edozein.*"

2. Txintxilikek, 2019ko otsailaren 12ko bere idazkian, defendatzen du gertatzen dela APELeko 47.1 artikulua c) letran aurreikusten den kasua, hau da, kontratua esleitzeko akordioak eta kontratuak berak duten edukia ezinezkoa dela eta, horrenbestez, zuzenbidez erabat deusezak direla.

Esleipen ekintzan gertatu ustezko irregulartasun bat alegatzen du, Txintxiliken eskaintzari erantsitako aurreproiektua ez zelako hirigintzaren ikuspegitik aztertu. Horretaz gain, dio ezen plan bereziak 40 metrora mugatu zuela eraikinaren gehieneko luzera, kontratuaren kontra eginez horretan zeren eta *alderdi honek aurkeztutako aurreproiektuko eta proiektuko luzera 43 m²-koa [sic] izan zen*. Era berean, hizpidera ekarri du baldintza agirietan, aurreproiektuan eta plan berezian aurreikusitako azaleraren alderaketa-taula bat. Eta, kontsiderazio horietan oinarriturik, dio ezen Udalak 2018ko azaroaren 12an egindako errekerimenduak berekin dakarrela "*dokumentazio aurkeztua, horren bitartez kontratuan esleipendun gertatu baitzen*", zuzenbideari eta plan bereziari ez egokitzea; eta okerreko egokitze horrekin lotzen du, hurrena, kontratua ezin gauzatzeko izatea, ezinezko edukia duelako.

3. APELeko 106.1 artikulua ezartzen duenez, "*Administrazio publikoek, noiznahi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztat joko dituzte, ofizioz, administrazio bidea amaitu duten administrazio egintzak edo epe barruan aurkako administrazio errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan*".

4. Bere aldetik, APELeko 106.3 artikulua xedatzen duenez, "*ofizioz berrikusteko eskumena duen organoak, Estatu Kontseiluaren edo autonomia erkidegoko organo aholku-emailearen irizpena eskatu beharrik gabe, interesdunek egindako eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, arrazoiak azalduta, honako kasu hauetan: eskaerak 47.1 artikulua araberaren deuseztat jotzeko arrazoiren batean oinarritzen ez direnean, edo argi eta garbi funtsik gabeak direnean, edo oinarri berdintsuko beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita daudenean*".

5. Administrazio egintza irmoak ofizioz berrikustea legean aurreikusitako aukera bat da, eta urratu egiten du segurtasun juridikoaren printzipioa. Horregatik, doktrinak eta jurisprudenziak behin eta berriro jaso dute prozedura hori ezohikoa eta salbuespenezkoa dela, eta berrikuste horretara jotzeko aukera ematen duten kausak modu murriztailean interpretatu behar direla beti. Ezohiko izate horrek eragotzi egiten du horrelako bat planteatzea ahalbidetzen duten arauen eta kasuen interpretazio zabala egitea. Are gehiago, hori babesten duten arauen interpretazioa erabateko zurruntasunez egin behar da. Gogorarazi behar da ezen administrazio egintzen baliogabetasunari dagokionez, arau orokorra deuseztagarritasuna dela, eta horrelaxe dago araututa APELeko 48. artikuluan; aldiz, erabateko deusezatasuna salbuespena da, eta kausa tasatuetako bat gertatzen denean baino ez da horrelakorik izaten.

Edo, beste era batean esanda, ekintza deusezak berrikusteko ahalmena "*zuzenbide urraketa kasu izugarri larrietarako dago gordeta, horrelakoetan segurtasun juridikoak alde batean geratu behar baitu, zeharo onartezina delako horrelakoak ordenamenduan agertzea. Beraz, ahalmen hori baliatzen denean kontrol zorrotza zertu behar da, bai legearen araberaren ahalmen hori baliatzea ahalbidetzen duten kausak (erabateko deusezatasuna dakarten kausak) era murriztailean interpretatzeko bidetik joz, bai eta legeak ahalmen hori baliatzeko ezartzen dituen mugak kontuan hartuta ere, hain zuzen ahalmen hori ez eramatearren larriak, are nabarmenak ere, izan arren komunitate juridikoak onartezin jotzen dituen zilegatasun falta zeharo agerikoak izatera iristen ez diren lege urraketa kasuetara*" (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 4/2014 zk.ko irizpena edo, beste termino batzuetan, baina zentzu berarekin, batzorde beraren 120/2017 Irizpena).

6. Zuzenbidean erabat deusez izatea dakarkeen kausa zehatzari dagokionez (ezinezko edukia duten egintzak), Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak dio ezen *“doktrina eta jurisprudentzia bat datozela, ezinezko edukia duen egintzaren bitxitasuna aipatzean, hain zuzen sailhestarren horrek balio izatea legez kanpoko edo galarazpen kasu hutsak oker bidez sartzeko –prebentzio hori ohikoa da deuseztasun arrazoi guztien kasuan–”* eta *“kasua aplikatzeko esparru egokirik baldin bada, hori ezintasun materialarena dela, horrelako egoeretan ezin gauzatuzko ekintza hori ezinezko gertatzen baita, bai lege fisikoen kontra doalako, bai benetan existitzen ez den egitatezko kasu batetik abiatzen delako”* (94/2018 zk.ko Irizpena). Irizpen horrek berorrek ondoren dioenez, *“administrazio egintzen ezintasuna fisikoa, ideala edo juridikoa izan daiteke. Egintza baten ezintasun fisikoa gertatzen da, aplikatuko zaion errealitate materialarekiko zeharo desegokia denean, esate baterako benetan existitzen ez den subjektu edo objektu bati lotzen zaionean. Ezintasun ideala egintzaren egitura logikoa oker itxuratuta dagoenean gertatzen da, egitura horren barnean kontraesanezko elementuak daudenean alegia, eta juridikoa, egintza argi eta garbi doanean ordenamendu juridikoaren kontra, egintzaren beraren oinarriak falta direlako.”*

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpidea jurisprudentziarik pisuzkoenetik aterata dago, logikoa den bezala. Irakurri, esate baterako, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren 5. Sekzioak 91/2016 errekurtsioan 2017ko otsailaren 2an emandako epaia, honakoa baitio zuzenbideko zortzigarren oinarrian:

“Aipatu behar da ezen ezinezko edukia duten administrazio egintzen erabateko deuseztasuna kopia dela, Kode Zibileko 1.272 artikulua kontratuari dagokienez aipatzen duen printzipioaz (LEG 1889, 27) egintza horien araubidera egin kopia alegia. Ezinezko edukia duten egintzen deuseztasuna zuhurtzia handiz jaso dute beti doktrinak eta jurisprudentziak, ahalegina egiten baitute lege kasu hori ez dadin desegoki aplikatu oinarri juridikorik gabe emandako edozein egintzatan.

Ezintasunaren baldintzei dagokienez, aipatu dugu ezen prozedura legeko arauak aipatzen duen ezintasunak materiala edo fisikoa izan behar duela, zeren eta izaera juridikoko ezintasuna egintzaren legez kanpokotasunaren pareko izango bailitzateke ia-ia, eta horrek berekin ekarriko bailuke deuseztagarritasuna (APL 48.1 art. (LBK 1986, 939) eta AAJLren 83.2 art. (LBK 1998, 1741); era berean, ezintasunak sorburukoa izan behar du, zeren eta geroago sortutako ezintasunak egintzaren eraginik eza besterik ez bailuke ekarriko.

Eduki ezinezkoa edukitzeagatiko egintza deusezak dira, beraz, egokitzen zaizkion errealitate fisikorako erabat eta sorburutik beretik desegokiak direnak. Ezinezko edukia dute, halaber, bere terminoetan barne kontraesana dutenak (ezintasun logikoa) ezinbesteko lege fisikoen kontra doazelako edo arrazoi bidez gaindiezin jotzen denari aurre egiten diotelako. Azkenean jurisprudentziak, kasu batzuetan, egintzaren ezintasunaren pare jarri ditu egintzaren edukiaren zehaztapenik eza, anbiguotasuna edo ulergaitzasuna (1981eko azaroaren 6ko eta 1985eko maiatzaren 9ko epaiak).”

7. Doktrinak, kontsulta organoek eta jurisprudentziak Txintxiliek alegatutako erabateko deuseztasun kausari eman dioten esangurarekin eta irismen juridikoarekin bat, zeharo agerikoa da kausa hori ez dela gertatzen esleipenaren egintza administratiboan eta horren ondotiko kontratuan.

Lehenik aurreproiektua, Txintxiliken bazkideek aurkeztua, egin behar zen obrarako proposamen zenbatetsi edo gutxi gorabeherakoa zelako. Gogoratu ezen obraren aurreproiektuaren xedea *obraren lehen ikuspegi orokor bat eta aurrekontuaren aurrerapen bat ematea* dela (1.4.2 puntua, 2512/1977 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, arkitektoen laneko lansari tarifak onartzekoa; arau testu horretantxe dago aurreproiektu, oinarritzko proiektu eta egikaritze proiektu kontzeptuen arteko bereizketaren sorburua).

Gauzak horrela, aurreproiektuak ez zuen jasotzen (eta ezin zuen gainera), Txintxilikek 2019ko otsailaren 12ko idazkien defendatzen duen moduan, obraren formulazio zehatzik, arlo eta puntu guztietan alderdientzako loteslerik. Horixe ondorioztatzen da, argi eta garbi, AKPAko 9.2 klausulatik eta BTAko 2.1 eta 11. baldintzetatik, horiek guztiak bat baitatoz SPKLTBko 279.1 artikulua¹ jasotzen duen dinamikarekin.

Bigarrenik, kontratua sinatu eta indarrean sartu ondoren kontratistak -Txintxilik- bere gain hartzen zuen obligazioa zelako idaztea eta aurkeztea, egikaritze fasean, obrak egikaritzeko proiektua, Zarauzko Udalak onespena eman ziezaion, eta horrek, bere aldetik, beretzat gordetzen zuen aurkezten zen egikaritze proiektuko zehaztapenen gainean aldaketak ezartzeko ahalmena; hori guztia AKPAko 4. eta 17. klausuletan, BTAko 2.1 eta 6. baldintzetan, esleipenaren xedapen zatiko lehen apartatuan eta kontratuko bigarren estipulazioan² jasoarekin bat.

Hirugarrenik, egikaritze proiektuak egokitu egin behar zuelako indarrean dagoen araudira, tartean hirigintzako araudira, horrelaxe ezartzen zuten eta, berariaz, BTAko 2.1 eta 8. baldintzek.

Laugarrenik, Zarauzko Udalak egikaritze proiektua onartu balu ere (sekula ez zen, baina, horrelakorik gertatu), bai SPKLTBk bai baldintza agiriek Zarauzko Udalarari aukera ematen ziotelako kontratua aldatu eta, azkenean, aipatu aldaketak ezartzeko:

- bai SPKLTBn aurreikusten diren aldaketarako legezko balizkoak gertatzeagatik (tartean dago, berariaz -107.1e) artikulua-, prestazioa egokitu behar izatea kontratua esleitu ondoren onartutako hirigintza zehaztapenetara),
- bai baldintza agirian aurreikusitako terminoetan, "gehienez kontzesio honen xede diren obrak eta instalazioak jartzeko kostuen % 50"ez (AKPAko 20. klausula).

Eskumen horrek aukera emango zuen, edonola ere, obrak egiteko unean sor zitezkeen arazoei aurre egiteko, prestazioak gauzatzeko ezintasunera iritsi aurretik, inolaz ere.

8. Aurrekarietan azalduta geratu den moduan, Txintxilikek egikaritze proiektu bat aurkeztu zuen -Zarauzko Udala ez zen hori onartzera iritsi-, eta horrek agerian jarri zuen 18. eremua -Asti kirolgunea- deituaren aisialdi gunearen hirigintza erregulazio eskasa, dagokion hirigintza zerbitzuak eman txostenetan behar bezala egiaztatuta geratu den moduan.

Testuinguru horretan, Udalaren aukerak honakoak ziren:

- Aurreproiektua eta proiektua aldatzeko dituen ahalmenak (baldintza agirian berariaz aurreikusitak) baliatzea zeharo baliozkoa zen kontratua egikaritzeko, eskatuz bide batez horiek goitik behera egokitzea une horretan zegoen hirigintzako esparruari;
- Edo, gertatu zen moduan, eta kontratuaren bizitza mantentzeko eta krisirik ez gertatzeko ahalegin batez, emakidadunaren onerako eta haren onspenez, hirigintzako esparru hori egokitzea, hain zuzen ere emakidadunaren onerako ahalbidetzearren

¹ SPKLTBko 279.1 artikulua: *Kontratistak zerbitzua antolatu eta eskaini behar du kontratuan jartzen duen bezalaxe eta kontratuan zehazturik datozen epeetan. Obrak gauzatzeko bada kontua, kontratazio-organoak onartutako proiektuaren arabera gauzatu beharko ditu.*

² Kontratuko bigarren estipulazioaren arabera, *kontratua sinatzen denetik aurrera, erakunde emakidadunak gehienez hiru hilabeteko epea izango du taberna-jatetxerako obra eta jarduera proiektuak eta aisialdi guneko obra edo hornidura proiektua idatzeko (proiektu horiek Zarauzko Udalaren onspena beharko dute). Udalak, gainera, azkenean aurkezten diren proiektuetan aldaketak sartzeko eskatu ahal izango du.*

kontratua aurkeztutako aurreproiektuari (ez proiektu aurkeztuari) egokituagoko terminoetan egikaritzea.

Gauzak horrela, erabaki zen hiri berrikuntzako plan berezi bat onartzeko prozedura abiatzea, Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak aipatu areari dagokionez jasotzen zuen erregulazioa xehatzearen eta, horren babesean, hirigintzako erabateko eta zalantza gabeko estaldura ematearren kontratua egikaritzeari, taberna/jatetxe eraikin berriaren eraikuntzari zegokionez.

Plan berezia onartzeko prozesuan zehar, Txintxilikek parte hartu eta alegazioak aurkeztu zituen. Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak neurri batean baietsi zituen horiek. Behin betiko onespeneraren ondoren, plan berezia aurkaratzeko eskubidea baliatu zuen Txintxilikek, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusian aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsio baten bitartez. 2018ko uztailearen 27ko epaiak ezetsi egin zuen errekurtsioa. Azken batean, plan bereziaren inguruan izandako jarduketek agerian uzten dute Txintxilikek, bere argudioen defentsan, kontra egin ahal izan ziola plan bereziari. Horrekin zera esan nahi dugu, plan bereziko zehaztapenak kontratua egikaritzeari aplikatzeak ez dakarrela, berez, kontratua egikaritzeko inolako ezintasunik.

Plan bereziak xehatu egiten ditu areako hirigintzako zehaztapenak, indarrean den hirigintzako araudia da, kontratua egikaritzeari aplikagarria, eta bat dator, goitik behera, kontratuan planteatutako obrak egiteko dinamikarekin (esleipendunak egikaritze proiektua aurkeztea, hirigintzako araudi aplikagarriari egokituta, Udalak berariaz eman onespeneraren eta onspen horren aurretik Udalak sar ditzakeen aldaketen mende).

Azken batean, Udalak aukera bazuen ere Txintxiliki eskatzeko proiektua jatorrizko beharren programako zehaztapenetara egoki zezala, esleipendunarekiko fede onez jardunez, onartu zuen aurkeztutako aurreproiektuari (inoiz ez proiektuari) egokituagoko proiektu bat egikaritzeko hirigintzako esparrua sortzea.

Horregatik guztiagatik, eskatzaileak alegatutako ideia bazterturik, horren arabera Txintxiliken eskaintza itxuratu zuen aurreproiektua obra egikaritzeko tresna lotesle eta mugiezina baita, aurreko kontsiderazioek agerian jartzen dute alegatutako erabateko deuseztasun kausak ez duela oinarririk. **Kontratuak eta, beraz, esleipen egintzak eduki gauzagarria eta, gainera, galdagarria daukate, Udalak 2018ko azaroaren 13an Txintxiliki errekeritu baldintzetan beretan.** Are gehiago, 2019ko otsailaren 12ko idazkiaren edukiaren arabera kontratua egikaritzetik ez izateko oztopo nagusia plan berezia bada, begi-bistakoa da ezen akordio bat iritsi ahal izatearren 2016ko urtearen amaiera eta 2017koaren hasiera aldean izandako negoziazioan zehar eragozgarri horietan egon behar zutela, zeren eta plan berezia onartuta baitzegoen ordurako (2016ko urriaren 27an onartu, eta 2016ko azaroaren 15ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean). Une honetan, hots, negoziazio egoera eta egikaritzeko ustezko ezintasuneko egungo egoera aurrez aurre jartzean agertzen den kontraesanak ere erakusten du kontratua, orduan eta orain, egikaritzeko modukoa dela, berak jasotzen dituen terminoetan.

9. Bestetik, esku artean dugun ohiz kanpoko berrikuspenaren zilegitasunari buruzko azterketan ezin da bazterrean utzi obra-lizentzia eskaera ukatzen zuen 2016ko uztailearen 26ko akordioaren aurrean Txintxilikek erakutsi zuen jarrera. Txintxilikek ez zituen obra-lizentzia ukatzen zion aipatu akordioaren kontrako errekurtsio arruntak aurkeztu eta, beraz, ez zen saiatu tesiaren defentsa ohiko eta berezko bidetik egiten, eta orain, ezohiko eta aparteko bide bat jorratuz, aukera hori zabaldu nahi du atzera, kontratuaren arabera dagozkion obligazioetatik libre geratzearren.

10. Konklusioa: gauza agerikoa da kontratua esleitzeko egintzan ez dagoela inolako ezintasun fisiko, ideal edo juridikorik, ezta, horrenbestez, kontratuan ere, eta bidezko da aipatu egintzak ofizioz berrikusteko eskaera aztertzeko ez onartzea, APELeko 106.3 artikulua babesean.

11. Azaldutako arrazoi berberengatik, konklusio berdinerari iritsi behar dugu kontratua esleitzeko egintza eta kontratua bera deuseztagarritasunagatik berrikusteko eskaera subsidiariorik dagokionez ere. Lehen azaldu dugun moduan, zuzenbideari egokitutako jarduketak dira, baliozkoak diren eta indarrean dauden baldintza agiri batzuen esparruan garatzen ari dira, eta jasotzen dituzten prestazioak zeharo eta bidez gauzagarriak dira. Gauzak horrela, argi dago ez diotela interes publikoari kalterik eragiten (APELeko 107.1 artikulua), eta horrenbestez dagozkien ondorioak izaten segitu behar dute.

Are gehiago, idazkian jasotzen den deuseztagarritasun eskaera orokorra da, zehaztasunik gabea, ez baitu identifikatzen ezta esleipen egintzak eta kontratuak urratzen duten instituzio edo kontratu elementua bera ere.

12. Ikusirik berrikusteko eskaerak -nagusia eta subsidiarioa- ez direla bideragarriak, ez dagokio Txintxilikek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duenik aitortzea ere.

13. Azkenik, eskaera subsidiario gisa kontratua suntsiarazteko espedientea abiatzea jasotzen da, SPKLTBko 223.g) artikulua jasotzen duen kausa aipatuz horretarako, hau da, “prestazioa alderdi honi esleitu zitzaion terminoetan emateko ezintasuna”.

Honakoa gehitzen du: *“Administrazioak berak 2018ko azaroaren 12ko bere errekerimenduan aitortu duen moduan”*. 2018ko azaroaren 12ko errekerimendu aipatuak inon ez du jasotzen emakidadunaren idazkiak aipatzen duen ustezko aitortza edo errekonozimendu hori.

SPKLTBko 223.g) artikulua jasotzen duen suntsiarazteko kausa aipatuak, hitzez hitz, honakoa dio: “Prestazioa hasieran adostutako moduan emateko ezintasuna edo prestazio baldintza horietan ematen jarraituz gero interes publikoari lesio larria eragiteko benetako arriskua, kontratua I. liburuko V. tituluaren xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada”.

Gertaeren kontakizunetik ondorioztatzen den bezala, **ezerk ez du eragozten kontratua baldintza agirietan aurreikusitako terminoetan egikaritzea**. Plan bereziaren aurretik ez zegoen inolako eragozpenik, Udalak ahalmen osoa zuela beharren programari egokitutako egikaritze proiektua aurkezte eskatzeko; eta gaur egun ere, plan berezia onartu ondoren, ez dago inolako eragozpenik, zeren eta plan horrek, are gehiago, emakidadunaren onurara begira eta kontratuaren krisia saihesteko ahalegin batean, hirigintzako estaldura xehatua ematen baitio aurkeztutako aurreproiektuari egokituagoko egikaritze proiektu bati.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da ezen kontratu publikoak suntsiaraztearen eta kontratuen baliogabetasunaren arteko aldea dela azken honetan bizioa egotea kontratuko elementuetan; suntsiarazteak, aldiz, printzipioz baliuzkoak izaki egikaritze bidean diren kontratuei eragiten die, egikaritu ezin direnean.

Gauzak horrela, Txintxilikek aurkeztutako idazkian jasotzen den argudioak behin eta berriro eta berriaz aipatzen du (orain arte luze eta zabal deskribatu den moduan) kontratuaren ezinezko edukia, eta horrexen gainean oinarritzen da deuseztasunagatik ofiziozko berrikuspenera jotzeko eskaera. Bada, kontratuaren eduki zeharo gauzagarriari buruz aurrez esandako guztiaz gain, esan behar ezen baliogabetasunaren argudioari eusten dioten gertaerek zeharo onartezin bihurtzen dutela, kontraesanezko eta bateraezin gertatzeagatik, egikaritzeko ezintasunagatik deuseztatze eskaera, zeren eta kontratuaren baliozkotasunaren ustekizuna baitakarte berekin

ezinbestean. Azken batean, baliogabetasun eskaera zeharo bateraezina da gertaera beretan oinarritutako deuseztatze eskaerarekin.

Are berriro azpimarratzen dugularik egikaritze hori zeharo gauzagarria dela bai kontratua formalizatu zen unean bai une honetan bertan ere.

Azkenik, eta dialektika maila hutsean, kontratua bere hasierako terminoetan egikaritzea posible izan ez balitz ere, posible izango zen haren aldaketa ezartzea, I. liburuko V. tituluaren babesean, salbuespen horixe jasotzen du eta, berariaz, SPKLTBko 223.g) artikuluko deuseztatze kausa aipatuak, hain justu ere 107.1.e) artikuluko aldatze kausak gertatzen direlako, hau da, “prestazioa kontratua esleitu ondoren onartutako teknika, ingurumen, hirigintza, segurtasun edo irisgarritasun beharrei egokitu behar” izateagatik. Hau da, gerora iritsitako plan bereziaren onarpenaren ondotik, Udalak, edonola ere, kontratua aldatzea ezar zezakeen, eta plan hartara egokitutako egikaritzea halaber.

14. Azken batean, bidezkoa da kontratua esleitzeko egintza eta kontratua bera ofizioz berrikusteko eskaerak ez onartzea, eta prestazioak gauzatzeko ezintasunagatik deuseztatze prozedura abiatzeko eskaera ezestea.

15. Zarauzko Udaltzarrari dagokio Txintxiliek 2019ko otsailaren 12an egin eskaera ebatzea, hain zuzen ere bat etorritik SPKLTBko 34.2 artikulua testu bereko 2. xedapen gehigarriari loturik dioenarekin, AKPAko 3. klausularekin, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak (TAOL), TAOLeko 4.1 g) artikuluan aitortutako ahalmenari dagokionez xedatzen duenarekin.

16. Eskaerak interesdun bakar batek bideratu dituzenez, bidezkoa da dagokion ebazpena Txintxiliki entzute izapidea eman beharrik gabe ematea, APELeke 84.4 artikuluekin bat.

Hori guztia kontuan hartuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Tramitera ez onartzea honako hauek ofizioz berrikusteko eskaera, Txintxilik II Zarauzko Udalaren Sozietate Emakiduna SLren izenean eta ordezkari gisa Olaya Landa Argote andreak egindakoa: Astiko jolasgunean taberna-jatetxearen eraikin berria egiteko eta aisialdiko instalazioak egiteko, bai eta hori guztia ustiatzeko ere, herri-lanen kontzesioa kontratatze esleipen akordioa (2013I1200011 espedientea) eta 2015eko maiatzaren 12ko kontratua, eskaera horren oinarrian ez dagoelako legez ezarrita dauden berrikusteko arrazoiak bat bera ere.

Bigarrena.- Ez onartzea honako hauen kaltegarritasun-deklarazioen prozedura abiatzea: Astiko jolasgunean taberna-jatetxearen eraikin berria egiteko eta aisialdiko instalazioak egiteko, bai eta hori guztia ustiatzeko ere, herri-lanen kontzesioa kontratatze esleipen akordioa (2013i1200011 espedientea) eta 2015eko maiatzaren 12ko kontratua.

Hirugarrena.- Ezestea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 223 g) artikuluan aurreikusitako kausagatik kontratua suntsiarazteko eskaera.

Laugarrena.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea, bidezko diren errekurtsioak adierazita.

Une honetan **Carvajal** andrea bilkuratik joan da.

18.- ZARAUZKO ASTIKO JOLASGUNEAN TABERNA-JATETXEAREN ERAIKIN BERRI BAT EGITEA ETA AISIALDIKO INSTALAZIOAK EGITEA, BAI ETA HORI GUZTIA USTIATZEA ERE, HELBURU DUEN HERRILANAREN KONTZESIOAREN KONTRATUA –TXINTXILIK II ZARAUZKO UDALAREN SOZIJETATE EMAKIDUNA SL-REKIN SINATUA– SUNTSIARAZTEKO PROZEDURA OFIZIOZ HASTEKO ERABAKIA.

Expediente 2013I1200011

I. AURREKARIAK

A) Agiriak onartzea

2014ko urriaren 29an Astiko jolasgunean aisialdirako instalazioak eta taberna/jatetxe bat hartzeko eraikin berri bat gauzatzeko eta haiek ustiatzeko herri lanaren emakida kontratuari (2013 I 120 0011 zenbakiko espediente) zegozkion Administrazio Klausula Berezien Agiriak (AKBA) eta Baldintza Teknikoen Agiriak (BTK) onartu zituen Zarauzko Udaleko Udalbatzarrak.

Hauexek zituen xede lizitazioak: (i) Astiko jolasgunean taberna/jatetxe bat hartzeko eraikin berri bat eraikitzea, (ii) olgetarako instalazioak gauzatea eta (iii) aipatu taberna/jatetxea eta olgetarako instalazioak ustiatzea.

AKBAn herri lanaren emakidatzat kalifikatu zen kontratazio kontratua, Sektore Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuarekin bat etorrita.

AKBaren Xedapen Orokorretako 4. klausulan finkatzen zen esleipendunak gehienez ere 3 hilabeteko epea izango zuela, «kontratua sinatzen zen egunetik kontatzen hasita, Taberna/Jatetxearen Obra Proiektua eta Jarduerakoa eta Jolasgunerako Obra Proiektua eta Hornidurakoa idazteko (Zarauzko Udalak onartu egin beharko ditu proiektu horiek)» idazteko. Klausula horretan bertan, Udalak berretzat gordetzen zuen aurkeztutako azken proiektuetan aldaketak eginarazteko ahalmena.

Eskaintza osatu behar zuten dokumentuen artean, eraikin berriaren aurreproiektu bat aurkezteko eskatu zitzaizen lizitatzailerei, 24 puntu arte balioetsiko zen. Era berean, aisialdirako eremu berriari buruzko aurreproiektu bat aurkeztu behar zen, 10 puntu arte balioetsiko zen. Dena AKBaren 9.2. Klausulan xedatutakoarekin bat etorrita.

AKBaren 17. klausulak, kontzesiodunaren betebeharrei buruzkoak, xedatzen zuen kontzesiodunaren betebeharra zela «Kontratu honen xedean deskribatutako lanak egitea (bai derrigorrez egin beharrekoak bai lizitatzaileri esleipendunak egitea proposatu dituenak) eta bermatzea lan horiek egitean zorrotz jarraitu direla bai onartutako proiektuan jasotakoa, bai proiektua interpretatzean Udalak kontratistari

emandako jarraibideak, eta horiek guztiak kontratuaren epe eta baldintzetan egiten direla, beste aldaketarik gabe (behar den bezala baimendutakoak izan ezik).»

Eta hauxe xedatzen zuen AKBaren 20. klausulak: «Kontzesioaren epea 30 urtekoa denez, interes orokorreko obrak edo instalazioak egitea erabaki daiteke. Horien zenbatekoa gehienez kontzesio honen xede diren obrak eta instalazioak jartzeko kostuen % 50 izango da. Kontzesioaren kanona eta Udalaren ekarpena ere % 50ean aldatu ahalko da, oreka ekonomiko eta finantzarioa bermatzeko.

Herri lanaren aldaketa bat etorriko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 250 artikuluan xedatutakoarekin.

Eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 258 artikuluan xedatutakoak arautuko du kontzesioaren oreka ekonomikoari eragiten dion edozein aldaketa.»

AKBaren 21. klausulak, kontratua gauzatzeko epeei dagokienez, honako hau jasotzen zuen: «Kontratutako enpresak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo partzialak igarotakoan burutu gabe baldin baditu egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea [...]» Prestazioen gauzatzeko partzialari dagokionez, hauxe xedatzen zuen Klausula horrek berak: «Kontratutako enpresak, bere erruagatik, kontratuan zehaztutako prestazioak partzialki burutu gabe utzi baldin baditu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea.»

AKBaren 24. Klausulak, Kontzesioa bukatzea goiburukoak, finkatzen du kontratua epea igarota iraungiko dela edo kontratua bertan behera utzita. Bigarren iraungitze mota horri dagokionez, hauxe finkatzen zuen aipatu 24. klausularen b) letrak: «Hauek izango dira herri-lanen kontzesioaren kontratua suntsitzeko arrazoiak: batetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 269 artikuluan adierazitakoak, eta, bestetik, proiektuan berariaz adierazitako erabileretarako ez beste batzuetarako erabiltzea instalazio horiek kontzesiodunak, eta hori udal baimenik eduki gabe egitea.»

AKBarekin amaitzeko, esan beharra dago, bermeei dagokienez, egin beharreko inbertsioen zenbatekoaren behin betiko % 5eko bermea finkatu zuela 7. Klausulak, BEZa kanpo.

Bestalde, BTAk, zehazki «2.- Kontzesioan sartzen dena», «2.1.- Taberna/jatetxe modura erabiliko den eraikin berriaren proiektua idaztea» puntuan, zera zehaztu zuen: Kontratua esleitzen denean, taberna/jatetxe modura erabiliko den eraikin berriaren Gauzatzeko Proiektua idatziko du esleipendunak, **aldeztatik definitutako gutxi gorabeherako beharren programarekin bat etorritik eta indarrean dagoen araudia betetzeko egin behar diren egokitzapenekin.**» Eta hauxe gaineratzen zuen idatzizati berean: «Proiektu horrek honako hauek izango ditu bere baitan: **udal onespina emateko legezko tramiteak eskatzen dituen agiri eta zehaztapen guztiak eta obrak egiteko plan bat. Plan horretan epe batzuk identifikatuko dira, lanak hasteko, bukatzeko eta horiek erabiltzen hasteko.**»

Jarraian BTaren 2.2 idatz-zatian, Udalak onartutako gauzatzeko proiektuan finkatutako lanak burura eramateko enpresaren betebeharra finkatzen zen, haren arrisku eta menturara, sustatzaile modura jardunez eta bere eginez obraren zuzendaritza orokorra eta koordinazioa, segurtasun eta osasun alorrean.

Hauxe finkatzen zuen 5. baldintzak beharizanen programa orientagarriari dagokienez: «[...] ZHAPO betetzeko, aisia guneko eremu guztien azaleraren baturak (jatetxe/taberna, terraza...) **derrigorrez ezin izango du 2.250 m²ko azalera gainditu.** [...] partzelaren egungo egoeraren planoaz azaltzen da».

Jarraian, betebeharrak horretan bertan zegoen jasota taula hau: «**Gutxi gorabeherako azalera erabilgarriak m²-tan**». Esan beharra dago 150 m²-koa zela BARRUKO ZONA GUZTIRA

(banaketak kontatu gabe), eta 70 m²-koa KANPOKO ZONA ESTALIA-TERRAZA, 220 m² guztira. Halaz ere, «[...] II. eranskinean *eraikin berriaren kokapenaren proposamena aurkeztu da. Kalkuluen arabera, azalera gehienez ere 300 m²-koa izango da, eta hor proiektatuko da eraikin berria [...]*».

Ikusirik erabilitako terminologia, azaldu beharra dago besterik gabe orientagarriak zirela beharrianen programaren burubideak.

BTAREN 6. baldintzan finkatu zen gauzatzeko proiektuaren erredakzioak udal zerbitzu teknikoan gidalerroak izango zituela ardatz, eta zerbitzu teknikoek «egoki iruditzen zaizkien aldaketak sartu ahalko dituztela».

Gainera, agirian –eta ez aurreproiektuan– zehaztutako beharrianen programa aintzat hartuta idatzi behar zen proiektua.

BTAREN 11. baldintzak finkatzen zuen gauzatzeko proiektu teknikoan –Udalak onetsi beharrekoa BTAREN baldintzekin eta betebeharrekin eta arestian azaldutako AKBAREN klausulekin bat etorrira– zehaztuko zirela eraikin berrirako obrak, eta enpresa esleipendunak aipatu proiektuan zehaztu bezala eraman behar zituela lanak burura, nahiz eta, salbuespen modura, eta behin Udalak proiektu hori onartu eta gero, «*udal zerbitzu teknikoek aldaketak egitea erabaki dezaketen, beharrek hala eskatzen badute*» (BTAREN 11. baldintzaren bigarren paragrafoa).

B) Eskaintza eta dokumentazio eskakizuna

Finkatutako epean eskaintza bateratua aurkeztu zuten Txintxilik, S.L. eta Construcciones Astiarian, S. L. sozietateek. 2015eko otsailaren 27an egindako bileran, kontratazio mahaiak proposatu zuen Txintxilik SL eta Astiarian SL sozietateei esleitzea kontratua, eta ikusirik proposamen hori, 2015eko martxoaren 6an egindako bilkuran Zarauzko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Txintxilik SL eta Astiarian SL enpresei errekerimendua egitea agirietan finkatutako baldintzak egiaztatzen zituen dokumentazioa aurkezteko. Era berean, agirietan finkatutako behin betiko bermea –32.570,50 euro– osatzeko dei egin zitzaion.

C) Kontratua esleitzea

Dokumentazio eskakizuna bete ondoren, 2015eko apirilaren 15ean Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Txintxilik SL eta Astiarian SL sozietateei esleitzea Astiko jolasgunean aisialdirako instalazioak eta taberna/jatetxe bat hartzeko eraikin berri bat gauzatzeko eta haien ustiatzeko herri lanaren emakida, betiere «*klausulen agirian adierazitako gauzatze epean eta ordaintzeko eran, eta esleipendunak egindako eskaintzarekin bat etorrira.*»

Erabaki hartan bildu ziren, beste baldintza batzuen artean, taberna/jatetxearen obra proiektua eta jarduerako eta Jolasgunerako obra proiektua edo hornidurakoa idazteko gehienez ere 3 hilabeteko epea izango zutela kontratua sinatzen zen egunetik kontatzen hasita. Puntu horretan gogorarazten ziren Zarauzko Udalak esleipendunei proiektu horiek Udalak onartu behar zituela.

Esleipendunei eskatu zitzaion 15 eguneko epean eratzeko kontratua sinatuko zuen sozietate kapitalduna.

D) Kontratua formalizatzea

Berritik sortutako konpainia hori osatzeko tramitea bete ondoren, 2015eko maiatzaren 12an sinatu zen kontratu administratiboa Zarauzko Udalaren eta Txintxilik II Zarauzko Udalaren Sozietate Emakiduna, S.L. (Txintxilik) elkartearen artean.

2015eko maiatzaren 12an sinatutako kontratuko bigarren estipulazioan adostu zen ezen, kontratua sinatzen zen egunetik kontatzen hasita, esleipendunak **hiru hilabeteko epea zuela honakoak idazteko**: «*gehienez ere 3 hilabeteko epea izango zuela, kontratua sinatzen zen egunetik kontatzen hasita, Taberna/Jatetxearen Obra Proiektua eta Jarduerakoa eta Jolasgunerako Obra Proiektua eta Hornidurakoa (Zarauzko Udalak onartu egin beharko ditu proiektu horiek) idazteko. Udalak ahalak izango ditu azkenik aurkezten diren proiektuetan aldaketak egiteko exijitzeko.*».

Laugarren Klausulan jasoarazi zen Ángel María Astigarraga Iraolak egiaztatu zuela behin betiko bermea osatu zuela, 32.570,50 euroan zehaztua. Ildo horretatik, 32.570,50 €-ko sarrera bat dago jasota udal kontu hartzailetzaren kontabilitate orokorrean, behin betiko bermearen kontzeptupean, Txintxilik S.L. sozietateak egina (IFK: B75097485). Aipatu bermea eskualdatzeko aginduan ere Construcciones Astiaran, S. L. enpresa aipatzen da (IFK: B20637187)

Bestalde, kontzesiodunak bere egin beharreko betebeharrekin dagokienez, hauxe finkatzen zuen Seigarren Klausularen 1. idatz-zatiak Txintxilik sozietatearen betebeharrekin lotuta «*Kontratu honen xedean deskribatutako lanak egitea (bai derrigorrez egin beharrekoak bai lizitatzailer esleipendunak egitea proposatu dituenak) eta bermatzea lan horiek egitean zorrotz jarraitu direla bai onartutako proiektuan jasotakoa, bai proiektua interpretatzean Udalak kontratistari emandako jarraibideak, eta horiek guztiak kontratuaren epe eta baldintzetan egiten direla, beste aldaketarik gabe (behar den bezala baimendutakoak izan ezik).*»

AKBAren 21 Klausula birsortzen du Bederatzigarrenak, aitortu egiten dizkio Udalari honako aukera hauek: bete beharrekoak bete daitezela exijitzeko edo kontratua bertan behera uzteko aukera kasu hauetan: (i) Txintxilik sozietateari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik luzaizkizuten kasuetan, nola guztizko epean hala epe partzialetan, eta (ii) kontratuan finkatutako prestazio partzialak gauzatzeko lanak ez betetzean. Bi kasuetan, kontratua bertan behera uzteko erabakia hartzen bada, galdu egiten da jarritako bermea.

E) Ondorengo jarduerak

2015eko maiatzaren 7an gauzatzeko proiektua aurkeztu zuen Txintxilik sozietateak, eta udal lizentzia eskatu zuen taberna/jatetxea eta aisialdirako instalazioak eraikitzeko. Geroago, Txintxilik sozietateak gauzatzeko proiektuaren dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

2015eko maiatzaren 28an Udalaren onspena lortu baino lehen, Txintxilik elkarteak baimena eskatu zuen zegoen eraikina eraisteko eta eraikin berrirako lurzorua prestatzeko, dena lanak aurreratze aldera. Ez zitzaion eraisteko baimena eman.

Txintxilikek aurkeztutako gauzatzeko proiektua aztertzean zalantza batzuk sortu ziren Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrarekin eta kontratuan eta agirietan aurreikusitako baldintza teknikoekin lotuta. Hirigintza arloko zerbitzu eskumendunei eskatu zitzaion Txintxilikek aurkeztutako gauzatzeko proiektuari buruzko txosten bat idatz zezatela. Txosten hori 2015eko irailaren 25ean aurkeztu zen. Bertan azaltzen zen besteak beste zalantzak zeudela «*Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren proiektuaren eta kontzesioa kontratatzeko baldintza teknikoek betetze mailari dagokionez*», eta hauxe ondorioztatzen zen:

1. Kontratazio mahaiak edo informazio batzordeak, agirietan eta kontratuan Udalari esleitzen zitzaion erabakitze ahalmenei babestuta, irizpideak finkatu behar zituen arlo hauetan: (i) eraikinaren eta azalera erabilgarriaren okupazioa, (ii) atzera eramatea ibaiarekiko, (iii) zuhaitz edo abentura parkea eta (iv) eraikinaren estetika; eta

2. Atal hori ebazten ez zen bitartean ez zela proiektuaren eta arau teknikoaren arteko bateragarritasun txostena egingo.

2015eko irailaren 25eko txostena aurkeztu eta gero, zehazki 2015eko abenduaren 17an, idatzi bat aurkeztu zuen Txintxilikek Zarauzko udaleko Alkate/Lehendakariari zuzenduta; bertan zioen ordura arte egindako egintzek (esleipena eta kontratua) beren horretan jarraitzen zutela, eta bi aldeek kontratuan onartutako konpromisoak nahitaez betetzeko bidean jakinarazten zuten eskatutako obrak egiteko lizentzia isilune positiboz eskuratuta berehala hasiko zirela «Udalarekin sinatutako kontratuaren arabera lana egiten, sinatutako kontratuaren xedea eta emakida emateko akordioaren xedea burura eramateko asmoa zutela».

2016ko martxoaren 16an, Alkate/lehendakariak eskatuta, txosten bat landu zuen Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuak. Hauexek txostenaren helburuak: (i) Txintxilikek aurkeztutako aurreproiektuaren eta ZHAPoren arteko doikuntzaren analisia eta (ii) aipatutako aurreproiektuaren eta agirien arteko doikuntzaren analisia. Hauxe ondorioztatu zuen Zerbitzuak:

«Aurreproiektuak ez ditu betetzen baldintza agiriak, azalerari eta okupazioari dagokienez. Baldintza agirietan ez dago inolako justifikazio edo salbuespenik, aipatu okupazioa handitzea ahalbidetzen duenik, are gutxiago hain proportzio handian egiteko (% 33 gehiago).

Baldintza agiriak bere ere ez lukete beteko Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 6.5.19 artikuluko 4. paragrafoa, egungo eraikigarritasun fisiko bikoiztea proposatzen baita. Aurreproiektuari buruz aipatu moduan, plan berezi bat izapidetu edo, behintzat, aurreikusitako behar zen, hain igoera handia justifikatu ahal izatearren. Eraikigarritasun fisiko ezin da horrela handitu egikaritze proiektu baten bitartez.»

2016ko apirilaren 15ean, Zarauzko udaleko Alkate/Lehendakariak, Txintxilikekin negoziazioak izan ostean eta aurkeztutako proposamena agirietan eta indarrean dagoen araudian jasotako aurreikuspenekin egokitze akordioak lortzea ezinezkoa zela ikusirik, Txintxilikek jakinarazi zion 2015eko apirilaren 17ko esleipen erabakiaren harira aztertzen ari zela «ofizioz ikuskatzeko izapideak abiarazteko aukera».

Txintxilikek, 2016ko maiatzaren 6an 2015eko apirilaren 15eko jakinarazpenari erantzunez, baietsi zuen esleipena bat zetorrela agiriarekin eta aplikagarri den gainerako araudiarekin, berehala ordainduko zuela kanona, eta 2016ko maiatzaren 20an hasiko zituztela lanak, dagokion prozeduraren hasiera ekarriko zuten jakinarazpen bat jasotzen ez bazuen. Era berean, entitate esleipendunak adierazi zuen 2016ko maiatzaren 14 baino lehen ordainduko zuela kanona, kanon hori ez ordaintzeko aukerari buruzko jarraibide argi bat jasotzen ez bazuen. 2016ko maiatzaren 14an 7.000 euroko kanona ordaindu zuen Txintxilikek, baina ez zituen lanak abiarazi.

Baztertu egin zen Alkate/Lehendakariak 2016ko apirilaren 15eko idatzian iradokitzen zuten ofiziozko ikuskaritza, eta 2016ko ekainaren 9an, Hirigintza eta Ingurumen Zerbitzuaren 2016ko martxoaren 16ko txostena ikusirik, Alkate/Lehendakariak ebazpen bat eman zuen, eta horren arabera Hirigintza eta Ingurumen Sailari eskatzen zion aintzat hartzeko «plan berezi bat idazteko aukera, Astiko jolasgunean aisialdirako instalazioak eta taberna/jatetxe bat hartzeko eraikin berri bat gauzatzeko eta haiek ustiatzeko herri lanaren kontzesioaren kontratazioarako klausulen agirian aurreikusitako eraikigarritasuna izateko.»

Txintxilikek instantzia bat aurkeztu zuen 2016ko ekainaren 23an Zarauzko udaletxeko Erregistro Orokorrean; bertan jakinarazi zuen zeuden eraikinak eraitsi behar zituztela (komunak salbu), eta argindar eta ur hartuneen kokalekuei buruzko informazioa eskatu zuen, eta zein egoeratan zeuden jakin nahi zuen.

Alkate/Lehendakariak 2016ko ekainaren 28an erantzun zion instantziari esanez: (i) ezin zituela eraispen lanak egin, ez zitzaiolako horretarako baimenik eman, (ii) ez zuela hirigintzari buruzko araudia betetzen eta (iii) Zarauzko Udalaren asmoa zela taberna/jatetxe berri bat eraikitzea, baina agirietan aurreikusitako azalera gorenarekin. Ildo horretatik, Alkate/Lehendakariak jakinarazi zion Txintxiliki beharreko izapideak bideratzen ari zirela, zehazki Hirigintza Sailari eskatu zitzaiola plan berezi bat lantzeko agirietan aurreikusitako eraikigarritasuna ahalbidetzeko. Azkenik, aurreko jarduerak egiaztatzen ez ziren bitartean, kantina berrirako obrak onartuko ez zirela jakinarazi zion, eta ez zela zeuden eraikinak eraisteko baimenik emango.

Txintxilikek idatziz erantzun zion 2016ko uztailaren 20an. Berriz ere zioen indarrean zegoela kontratua, beterazlea zela, eta kontratuan jasotako lanak gauzatzen jarraitzeko asmo irmoa zutela. Eta eskatzen zion Zarauzko Udalari erantzun ziezaiela hodian eta zerbitzuen kokapenaren alderdi teknikoei buruz egindako galderei.

2016ko uztailaren 26an Zarauzko Udalak alde batetik ezetsi egin zuen Txintxilikek eskatutako obrarako lizentzia (irmo bilakatutako ezezko egintza administratiboa, ez baitzen errekurritu) eta bestetik, 18 esparruko -Astiko Kirolgunea- jolasguneko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea erabaki zuen (plan berezia).

Hasierako onarpen horrek ekarri zuen Zarauzko Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko topaketa batzuk egitea, akordio bat iristen eta sortutako aldeak gainditzen lortzeko xedean. Testuinguru horretan, aipatutako plan berezia jendaurrera eramateko epe barruan, Txintxilikek alegazio idatzi bat aurkeztu zuen 2016ko irailaren 17an. Enpresak zioen ez zuela erreparorik jartzen plan bereziak itxura batean argitu egingo zuelako kontratua gauzatzean sortzen ari zen segurtasun juridikorik eza, baina eskatzen zuen aipatu planak kontratuaren xedeko instalazioak egokitzeko aurreikusten zuen azalera handitu zedila eta esleipenean eta kontratuan finkatutako azalerara doitu zedila.

Zarauzko Udaleko hirigintza arloko zerbitzu eskumendunak 2016ko irailaren 23an eman zuen Txintxilikek aurkeztutako alegazioen idatziari buruzko iritzia, eta ZHAPOrekin bat etorrita, espazio librearen protagonismoa nabarmendu zuen, eta ez eraikinena, eta burubide horrekin bat etorrita, onartutako plan berezian taberna/jatetxea eraikitzeaz azalerari begira finkatutako azalera nahikoa zela gaur egungoarekin alderatuz gero. Hala eta guztiz ere, kontratuaren esleipenak sortutako egoera berezia ikusirik, eraikigarritasuna pixka bat emendatzea ulergarria zatekeela ondorioztatzen zuen.

2016ko urriaren 27an, behin betiko onartu zuen Zarauzko Udaltzarrak plan berezia, Txintxilikek egindako alegazioa hein batean aintzat hartuta eta eraikigarritasun maila gorena eraikitako 300 m²-tik 330 m²-ra emendaturik, kanpoko terraza barne hartuta, estalkirik baldin badu. Era berean, 300 m²-tik 330 m²-ra emendatu zen okupazio gorena, eta mugatu egin ziren lerrokadura gorenak.

2016ko azaroaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara erabaki hori, eta urte bereko azaroaren 17an zabaldu zen prentsan.

2016ko irailaren amaieraren eta 2017ko otsailaren artean negoiazio prozesu bat abiarazi zen Zarauzko Udalaren eta Txintxilik enpresaren artean, kontratuaren gauzatzearen inguruan sortutako gatazkari amaiera emango zion akordio bat lortzeko xedearrekin. Jarrerak antza hurbildu zirela ikusirik, Zarauzko Udalak akordiorako proposamen bat idatzi zuen -2017ko otsailaren 6an helarazi zitzaion Txintxiliki-, kontratuan aldaketak egitea ekarriko zuen helburu hauek lortzeko: (i) kontratua onartutako plan bereziak finkatutako esparruaren barruan

gauzatzeko, (ii) kontratuaren iraunaldia luzatzeko eta (iii) hornidurei eta eroaleei (argindarra, ur beroa, gasa eta saneamendua) buruzko erabakiak finkatzeko.

Bitartean, 2017ko urtarrilaren 11n, plan bereziaren onarpenaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu zuen Txintxilikek Justizia Auzitegi Nagusian.

Zarauzko Udalak landu eta 2017ko otsailaren 6an Txintxiliki jakinarazitako akordiorako proposamena ez zuen onartu azken horrek, plan berezia kontratuaren eta esleipenaren edukiaren kontrakoa, hau da, aldeek indarren dauden eta nahitaez bete beharreko egintza administratiboen kontrakoa zela argudiatuz. Txintxilikek berretsi egin zuen borondate osoa zuela kontratua gauzatzeko, esleitu zen bezalaxe. Posizio hori idatziz eta 2017ko otsailaren 27an jakinarazi zitzaion Zarauzko Udalari.

2018ko irailaren 10ean eman zen jakitera, Zarauzko Udaleko auzi ordezkartzaren bitartez, 2018ko uztailaren 27ko 364/2018 Epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Sailak 19/2017 prozedura arruntean emana (2018ko uztailaren 27ko epaia). Salak ezetsi egin zuen Txintxilikek plan bereziaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsioa, funtsean hauek izan zituelarik arrazoi:

1. Plan berezira mugatzen zen errekurtsioa, eta beraz, prozesutik kanpo gelditzen ziren (i) kontratua, (ii) obrei ekiteko ezetsitako hirigintza lizentzia eta (iii) kontratuaren balizko ez gauzatzea (2018ko uztailaren 27ko Epaiauren laugarren zuzenbidezko oinarria).
2. Plan bereziak legezko euskarria zuen ZHAPOn, eta estaldura xehatua eman nahi zion Txintxilikekin sinatutako kontratuari hirigintzaren esparruan, kontratuak «*aukera ematen baitzuen merkataritza sozietateak nahi zituen dimentsioekin eraikitze, eta beraz, planaren onarpenean ez zen legezko konfiantzaren eta ekintza propioen printzipiorik urratu, ez eta, helburua ikusirik, botere desbideratzerik plana onartzean*» (2018ko uztailaren 27ko Epaiauren laugarren zuzenbidezko oinarria, 7. orrialdea).
3. Administrazioak *ius variandi* erabili dezake lurzuaren antolamenduan, «*eta lortutako eskubideak eta Administrazioak egin ahal izan dituen hitzarmenak –eta beraz baita kontratu sinatuak ere– ez dira zentzuko erabilera ez arbitrarioaren eragozpen izango, nahiz eta Administrazioak hitzartutakoa bete ez eta hala dagokionean eta beste esparru batean kalte-ordainak ordaindu behar izatea ekar dezaketen*» (2018ko uztailaren 27ko Epaiauren laugarren zuzenbidezko oinarria, 7. orrialdea).

2018ko uztailaren 27ko epaia irmo bihurtu zen 2018ko urriaren 25ean, ez baitzen errekurtsorik aurkeztu.

Kontratuan aurreikusitako urteko kanonaren ordainketari dagokionez, argi esan beharra dago Txintxilikek ez zituela 2017ko eta 2018ko ekitaldiei zegozkien kanonak ordaindu.

F) Errekerimendua Txintxilik

Testuinguru horretan, Zarauzko Udalak, 2018ko uztailaren 27ko Epaia irmoa zela egiaztatu ondoren, 2018ko azaroaren 13an Alkate/Lehendakariak 2018ko azaroaren 12an egindako errekerimenduaren berri eman zitzaion Txintxiliki, hiru hilabeteko epean Udalari honako hauek aurkez ziezazkion: «*Taberna/Jatetxearen Obra Proiektua eta Jarduerakoa eta Jolasgunerako Obra Proiektua eta Hornidurakoa, 18 Esparruko Jolasguneko –Astiko Kirolgunea– Hiri berrikuntzarako Plan Berezian jasotako baldintzekin bat eginda, eta kontratua esleitzeko oinarri gisa erabilitako baldintza teknikoaren agirietako gainerako baldintzak*».

Aipatu hiru hilabeteko epe horren barnean, zehazki 2019ko otsailaren 12an, Txintxiliek idazki bat aurkeztu zuen, honakoak eskatuz bertan: batetik, ofizioz berrikustea Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko apirilaren 17an hartutako akordioa, kontratua esleitzekoa, eta, ondorioz, baita kontratua bera ere, kalte ordaina aitortzearekin batera; eta, bestetik, eta subsidiarioki, kontratua suntsiarazteko espedientea hastea, SPKLTBko 223. g) artikuluan xedatuan oinarrituta, ezinezkoa delako prestazioa kontratua esleitu zen baldintzetan gauzatzea.

Aspaldi amaitu zen Txintxiliki helarazitako errekerimenduan finkatutako hiru hilabeteko epea, eta ez da eskatutakoa bete. Gainera, Txintxiliek 2019ko otsailaren 12an aurkeztutako idatziaren edukitik ondorioztatzen da ez duela kontratuaren prestazioak emateko borondaterik.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Egitatezko aurrekariak aztertuta, ustez badaude kontratua suntsitzeko prozedura irekitzea justifikatzen duten arrazoiak, kontratistari egotz dakizkiokeenak. Hona hemen zer bi kausa dauden:

- Kontratistari egotz dakioke berandutu egin dela kontratuaren epe partzialak betetzen, AKPArekin (21.A klausula)³, kontratuko zazpigarren estipulazioarekin eta SPKLTBko 212.6 artikuluekin⁴ bat etorriz, lege testu bereko 269. artikuluko k letraren harira⁵. Izan ere, 3 hilabeteko epea zuen «*taberna-jatetxearen lanen eta jardueraren proiektuak, eta atsedenekua hornitzeko edo bertako lanen proiektua (Zarauzko Udalak onetsi beharko ditu proiektuak)*» aurkezteko (AKPAko 4. klausula, esleipen akordioko xedapen zatiko lehen zerbakia, kontratuko bigarren estipulazioa eta 2018ko azaroaren 12ko errekerimenduaren azken letra). Halaber, Txintxiliki 2018ko azaroaren 13an jakinarazitako errekerimenduari jarraituz, horiek guztiek bat etorri behar dute «*18. eremuko aisia gunea (Astiko jolasgunea) berritzeko plan berezian jasotako baldintzekin, baita kontratua esleitzeko oinarri izan diren baldintza teknikoen agirian jasotako gainerako aurreikuspenekin ere*».
- Kontratuko funtsezko prestazio baten exekuzioa ez betetzea; alegia, aipatu diren proiektuak aurkezteko betebeharra ez betetzea, berariazko borondate errebeldearekin, kontratuaren xedearen zati bat izanik. Horren ondorioz, Asti jolasgunean taberna-jatetxea izango den eraikin berria gauzatzeko lanak ezin dira egin, AKPAko 21.B) klausularekin⁶

³ Kontratua gauzatzeko epeak direla eta, hona hemen zer xedatzen den AKPAko 21.A) klausulan: «Kontratutako enpresak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo partzialak igarotakoan burutu gabe baldin baditu egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea».

⁴ SPKLTBko 212.6 artikulua:«Administrazioak ere aurreko paragrafoan adierazitako ahalmen berbera edukiko du [kontratua suntsitzeko edo exekutatzen jarraitzea erabakitze] kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean, baldin eta administrazio-klausula zehatzen pleguan halaxe jasota badago, edo, epe partzialok betetzen berandututa, guztirako epea ere ezin izango dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten bada».

⁵ SPKLTBko 269 k) artikulua:«Hauek dira herri-lanen kontzesio-kontratua suntsiarazteko kausak: [...] k) Lege honetan, beste edozeinetan edo kontratuan berariaz jasotako kausetako edozein».

⁶ Prestazioak zatika gauzatzearen harira, hona hemen 21.B) klausulan zer xedatzen den: «Kontratutako enpresak, bere erruagatik, kontratuan zehaztutako prestazioak partzialki burutu gabe utzi baldin baditu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea».

bat etorri, eta 1. klausularekin⁷, 24 b) klausularekin⁸ lotuta, baita BTAko 2.1 eta 2.2 aginduekin, kontratuko zazpigarren estipulazioarekin, eta SPKLTBko 223 h)⁹ eta 269 j) artikuluekin¹⁰ ere.

Kontratua suntsitzeko aipatu diren bi arrazoiak dakartzan oinarria garatu aurretik, argi azaldu behar da suntsitzeko prozedura hau zer testuinguru zehatzetan kokatzen den.

Txintxilikek dagozkion bi proiektu teknikoak aurkeztu behar zituen; ondoren, bazitekeen Udalak aldaketak egitea, eta horren ostean, Udalak onetsiko zituen. Gero, Txintxilikek lanak gauzatu behar zituen eraikin berria izateko amaieran, batik bat taberna-jatetxea zerbitzua emateko.

Hala ere, enpresa esleipendunak betebehari hori betetzearen aurkako borondatea agertu zuen 2019ko otsailaren 12ko idatzian, eta kontratua iraungitzeko eskatu zuen, horren edukia gauzatzea ezinezkoa delakoan, edo subsidiarioki, kontratua gauzatzea ezinezkoa zelakoan. Hori dela eta, Txintxiliken gaur egungo jarrera ikusita, enpresa esleipendunak zalantzan jarritako kontratua gauzatzea bideragarria ote den arrazoitu behar da, azaletik bada ere. Ondoren, kontratua suntsitzeko kausa horiek zergatik adierazi diren azalduko da.

Beraz, gai horren harira, Txintxilikek adierazten du kontratua ezin dela gauzatu bere eskaintzari erantsi zitzaion aurreproiektuko zehaztapenak lotesleak eta aldaezinak zirelako; hau da, lanak baldintza horietan egin behar ziren ezinbestez.

Aitzitik, arrazoibide hori okerra da kontratazio publikoko araudia eta agiriak ikusita:

- ✓ Batetik, Txintxilikeko bazkideek aurkeztu zuten aurreproiektua gauzatu beharreko lanen gutxi gorabeherako proposamen bat zen. Gogoan izan beharra dago lanen aurreproiektuaren helburua hau dela: «lanen lehen irudi osoa erakustea eta aurrekontua aurreratzea» (ekainaren 17ko 2512/1977 Errege Dekretuko 1.4.2 puntua; testu horren bidez, arkitektoek beren lanbideko lanetan jaso beharreko ordainsarien tarifak onetsi ziren, eta era berean, testu hori dela-eta bereizi ziren aurreproiektua, oinarritzko proiektua eta gauzatzeko proiektua).

Hartara, nahiz eta Txintxilikek hori dioen 2019ko otsailaren 12ko idatzian, aurreproiektuan ez ziren lanak zehatz-mehatz adierazi (eta ezin ziren hala adierazi), aldeentzat goitik behera lotesle izateko moduan. Hori guztia argi eta garbi ikusten da AKPAko 9.2 klausulan eta BTAko 2.1 eta 11. preskripzioetan, besteak beste.

- ✓ Bestalde, kontratua sinatu eta indarrean sartu ondoren, kontratistak (Txintxilik) lanak gauzatzeko proiektua idatzi eta aurkezteko betebeharra hartu zuen bere gain, gauzatzeko fasean, Zarauzko Udalak onesteko. Era berean, Udalak aldaketak egin zitzakeen aurkeztutako gauzatzeko proiektuko zehaztapenetan, kontuan hartuta hori guztia bat

⁷ AKPAko 1. klausula: «Astiko jolasgunean, batetik, **eraikin berri bat egin behar da taberna-jatetxe modura erabiltzeko**; bestetik, aisialdiko instalazioak egin behar dira; eta azkenik hori guztia ustiatu behar da. [...] kontratuaren gaia hau izango da: **horiek guztiak egiteko** Herri-lanen Kontzesioaren Kontratua arautuko duten baldintzak jartzea. [...]».

⁸ AKPAko 24.b) klausula: «Hauek izango dira herri-lanen kontzesioaren kontratua **suntsitzeko arrazoiak**: batetik, **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 269. artikuluan adierazitakoak**, eta, bestetik, proiektuan berariaz adierazitako erabileretarako ez beste batzuetarako erabiltzea instalazio horiek kontzesiodunak, eta hori udal baimenik eduki gabe egitea».

⁹ SPKLTBko 223 artikulua: «Hauek dira kontratua suntsiarazteko kausak: h) Kontratuan berariaz ezarritakoak».

¹⁰ SPKLTBko 269 artikulua: «Hauek dira herri-lanen kontzesio-kontratua suntsiarazteko kausak: [...] j) Kontzesiodunak kontratua uztea, kontratuari uko egitea edo kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea».

datorrela SPKLTBko 279.1 artikularekin, AKPAko 4. eta 17. klausulekin, BTAko 2.1 eta 6. preskripzioekin, esleipeneko xedapen zatiko lehen zenbakiarekin, eta kontratuko bigarren estipulazioarekin.

- ✓ Bestalde, horrezaz gain, gauzatzeko proiektuak indarreko araudia bete behar zuen edozein kasutan ere; besteak beste, bistakoa da hirigintzako araudia ere bete behar zuela (BTAko 2.1 eta 8. preskripzioak).
- ✓ Eta azkenik, Zarauzko Udalak gauzatzeko proiektua onetsi izan balu ere (hori ez zen inoiz gertatu), hala SPKLTBk nola agiriek aukera ematen zioten kontratua aldatzeko eta, azken batean, aldaketak inposatzeko.
 - Batetik, SPKLTBn badaude aldaketak egitea dakarten hainbat lege egoera, aplikagarri direnak hemen; besteak beste eta berariaz, prestazioa kontratua esleitu ondoren onetsitako hirigintza espezifikazioetara egokitzeko premia (107.1.e artikulua).
 - Eta bestetik, erreparatu egin behar zaie agirian jasotako baldintzei: «*Horien zenbatekoa gehienez kontzesio honen xede diren obrak eta instalazioak jartzeko kostuen % 50 izango da*» (AKPAko 20. klausula).

Aukera horren bidez, lanak gauzatzean sor zitezkeen arazoei aurre egin zekiekeen, prestazioak gauzatzea ezinezkoa izatera heldu baino lehen.

Horiek horrela, baztertu egin da kontratua bideraezina izatea, Txintxiliek dioen bezala, eta berriz helduko diogu suntsitzeko arrazoiak justifikatzeari:

- Kontratuko epe partzialak betetzen berandutzea dela eta, aipatzekoa da 3 hilabeteko epea amaitu izanak prestazioa gauzatu gabe epea ez betetzea dakarrela, kontratistari egotz dakizkiokeen kausengatik.

Ildo horretan, berriz aipatu behar da AKPAn bertan (21.A klausula) jasota dagoela kontratua suntsitzeko kausa posible bat epeak betetzen berandutzea dela, baita epe partzialak ere. Ez alferrik, lotuta dauden epeak dira, ondoz ondokoak dira, eta beraz, kontratua ere hurrenez hurren gauzatzen da, epe partzialak betez.

- Kontratuko funtsezko prestazio bat ez da gauzatu, eta prestazio hori, hain zuzen ere, kontratuaren xedearen zati bat da. Alegia, aipatu diren proiektuak ez dira aurkeztu, eta horren harira, kontratua sinatu ondorengo zenbait gertakari adierazi behar dira, labur bada ere.

Hasiera batean, hirigintzako kontuek Asti jolasguneari eragiten ziotela egiaztatu zenean, enpresa esleipendunak kontratua bete eta gauzatzeko borondatea agertu zuen.

Hala eta guztiz ere, Udalaren eta Txintxiliken arteko tirabirak behin betiko konpontzekoak zirenean, hots, 2017ko otsailean, akordio proposamena jakinarazi zenean eta plan berezia onetsita zegoenean, enpresa ez zen ados jarri ika-mika ebazteko. Aitzitik, negoziazioak eten egin ziren eta plan berezia aurkaratu zen.

Plan bereziaren aurka jarritako errekurtsioa ezetsi ondoren, eta kontratua gauzatzeko errekerimenduaren aurrean, Txintxiliek bere behin betiko eta egungo jarrera agerian ipini zuen 2019ko otsailaren 12ko idatzian. Hartan adierazitakoa eta 2016ko amaieran zein

2017ko hasieran erakutsitako borondatea nabarmen ezberdinak dira, garai horretan kontratua gauzatzekoa zela bistan baitzen, baita desadostasuna zekarten puntuak negoziatzekoa ere.

Gaur egun, kontratua gauzatzea ezinezkoa dela adierazten du, baina hasiera batean, kontratuaren eta hirigintzaren egoera berdinak dira orain eta aldeak aurrez aurre zeudenean, 2016ko amaieran eta 2017ko bukaeran bildu zirenean eta negoziazioetan zebiltzanean. Bilerak eta negoziazioak abian ziren garaian, plan berezia onetsita zegoen (2016ko urriaren 27an onetsi zen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko azaroaren 15ean).

Era berean, 2019ko otsailaren 12ko idatziaren arabera, kontratua gauzatzeko oztopo nagusia plan berezia da. Hala ere, ados jartzeko negoziazioan zehar plan berezia onetsita zegoenez gero, bistakoa da garai horretan ere oztopo bera egongo litzatekeela. Hortaz, bistako kontraesan horrek agerian ipintzen du kontratua ez zela sekula bideraezina izan, Txintxilikek dioen bezala. Kontratua gauzatu ahal izan da eta gauzatu daiteke hartan jasota dauden baldintzetan.

Halaber, ez da ahaztu behar plan berezian jolasguneko hirigintza arauak zehaztuta daudela, indarreko hirigintza araudia dela, kontratua gauzatzean aplikatu egin behar dela, eta zeharo bat datorrela kontratuan jaso den lanak egiteko dinamikarekin (esleipendunak gauzatzeko proiektu bat aurkeztea, aplikagarri den hirigintza araudiarekin bat datorrena, Udalak berariaz onetsi beharrekoa, eta Udalak onetsi aurretik egin ditzakeen aldaketen mende dagoena). Horrenbestez, plan bereziko zehaztapenak kontratua gauzatzeari aplikatzeak ez dakar berez kontratua gauzatzeko ezintasuna. Udalak, ordea, kontratuari bizirik eutsi nahian, krisia saihesteko, kontseziadunaren mesedetan eta bere onespenerekin (aurkeztutako alegazioak zati batean balioetsi ziren), hirigintza esparrua egokitu egin zuen, kontratua gauzatu ahal izateko aurreproiektuarekin (inoiz ez proiektuarekin) neurri handiagoan bat zetozen baldintzetan, kontsesiodunaren onerako.

Azken buruan, 2019ko otsailaren 12ko idatziaren edukia ikusita, eta adierazitako egoerak eta aurrekariak kontuan izanik, **frogatuta geratu da Txintxilikek kontratua ez betetzeko berriazko eta behin betiko borondate errebeldea duela.**

Bestalde, aintzat hartzen bada 2018ko azaroaren 12ko errekerimendua ez dela bete, egiaztatuta geratzen da kontratuko funtsezko prestazio bat ez dela bete, kontratuaren xedearen zati bat bada ere hori, eta beraz, kontratua suntsitzeko kausa hori ere gertatu dela eta kontratistari egotz dakiokeela. Izan ere, ikusi denez, kontratistaren ezezko justifikatu gabeak besterik ez du eragozten kontratua jasota dauden baldintzetan gauzatzeko.

Horren harira, betebeharrak bat funtsezkotzat jotzen da oinarrizkoa denean; hots, kontratuaren xedearen barnean dagoenean. Madrilgo Erkidegoko Kontsulta Kontseiluak horixe nabarmendu zuen 408/2011 Irizpenean, honela:

«Azken finean, azaldutakoa ikusita, argi geratzen da eta ez da haragoko interpretaziorik behar, alegatu diren ez-betetzeak kontratuaren funtsezkotzat jo daitezkeen prestazioei baitagozkie; alegia, ez dira oinarrizko betebeharrak bete, eta horrek kontratua erabat gauzatzeko eragozten du...».

Bistan denez, kontratua zeharo gauzatzeko lotuta dauden eta ondoz ondo doazen betebeharrak lehenengoa lanen proiektua aurkeztea da. Hartara, bistakoa da betebeharrak funtsezkoa dela eta ez betetzeak kontratua erabat gauzatzeko eragozten duela; horrenbestez,

betebehar hori betetzen ez bada, lanak ezin dira gauzatu, ezta gerora ustiatu ere (hain zuzen ere, horrek herri-lanaren kontzesioko kontratua zehazten du, SPKLTBko 7. artikuluari jarraituz).

2. Kontratua suntsitzeko kausak adierazi ostean, aipatu beharra dago AKPAko 21. klausularen arabera Udalak bi aukera dituela; batetik, kontratuarekin jarraitzea zigorrak ezarrita, eta bestetik, kontratua bertan behera uztea eta esleipendunak bermea galtzea. Udalak horrela joka dezake bi ikuspegitatik abiatuta: alde batetik, epeak betetzen berandutzeagatik, SPKLTBko 212.6 artikuluko aukerari jarraituz eta 21. klausulako berariazko aurreikuspenarekin lotuta; eta beste aldetik, funtsezko betebeharrak ez betetzeagatik, SPKLTBko 212.7 artikuluekin bat.

Esleipendunaren 2019ko otsailaren 12ko idatzian, argi ikusten da kontratu harremana desegiteko jarrera agertzen duela; hortaz, ez da egokitzat jotzen kontratua betearaztea eta zigorrak aldia behin ezartzea. Izan ere, Txintxilikekin izandako negoziazioak nola amaitu ziren ikusita, eta bereziki, Txintxiliki 2017ko otsailaren 6an jakinarazitako akordio proposamenak eragin zuen negoziazioaren amaiera ikusita (ez zuen proposamena onartu, une horretan plan berezia indarrean zegoelako), kontratua *behartuta* betearazten saiatzeak ez luke egoera konponduko, zigorrak etengabe ezarriko lirakeela kontuan hartuta. Prestazioa gauzatu ez den egoera hau nabari luzatu da, eta bistan denez, kaltegarria da Asti jolasgunea berritzea eta lizitazioko zerbitzuak herritarren eskura ipintzea dakarten interes publikoetarako.

Horiek horrela, egokia dirudi kontratua suntsitzea, hura gauzatzeko sortu diren arazo konponezinak beharrik gabe luzatu ez daitezen; horren ondorioz, kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak iraungi egingo dira, eta horrekin batera, egoera administratibo egokia sortuko da Udalak kontratua berriro lizitatzeko.

3. Kontuan hartu behar da AKPAko 21. klausulan eta kontratuko zazpigarren estipulazioan xedatzen dela ezen, suntsitzea erabakitzen bada aurreikusi diren bi kasuetako edozeinetan, behin betiko bermea galdu egingo dela ez betetzeagatik zigor klausula gisa. Era berean, kontratua suntsitzen bada bi kausetako edozeinengatik, Txintxilik, SLk (IFK: B75097485) eta Construcciones Asti SLk (IFK: B20637187) emandako 32.570,50 €-ko bermea galdu egingo da Zarauzko Udalaren alde.

Bestalde, aipatu egin behar da herri lanaren kontzesioko kontraturako zehazki aurreikusitakoa, 271. artikuluko (Suntsiaraztearen ondorioak) 4. zenbakian:

«Baldin eta kontratua kontzesiodunari egotz dakioken kausaren bat dela-eta suntsiarazten bada, fidantza inkautatuko zaio kontzesiodunari, eta, horrez gain, inkautatutako bermearen zenbatekotik gorako kalte-ordainak ere ordaindu beharko dizkio administrazioari».

4. Kontratua suntsitzearen ondoriozko kalteak direla eta, egokiena izango litzateke kontratuaren lizitazioaren faseko kalte-ordaina zehazteko ahalmenari eustea, bermea behin betiko kentzeko aukera baztertu gabe, zigor klausula gisa.

5. Suntsitzea erabakitzeko prozeduraren harira, hona hemen zer urrats egin behar diren, SPKLTBko 211. artikuluekin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 109. artikuluekin (1098/2001 ED), eta toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 114. artikuluekin (781/1986 LED) bat etorritz:

I. Kontratua suntsitzeko prozedura ofizios irekitzeko akordioa, Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak hartutakoa, SPKLTBko 224.1 artikuluekin bat etorritz eta bigarren xedapen gehigarriaren zein 249.1 d) artikuluen harira, eta AKPAko 3. klausulari, 1098/2001 EDko

109. artikuluari, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 artikuluari, eta 781/1986 LEDEko 114. artikuluari jarraituz.

- II. Entzunaldia kontratistari (Txintxilik), hamar egunetik beherakoa ez den eta hamabost egunetik gorakoa ez den epean.
- III. Entzunaldia bermatzaileari (Txintxilik SL, IFK: B75097485; eta Construcciones Astiarian SL, IFK: B20637187), behin betiko bermea eratzeagatik lehengo epe berean.
- IV. Idazkaritzaren txostenak, eta hala badagokio, Zarauzko Udaleko Kontu-hartzaitzarena.
- V. EAEko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, kontratistak aurka dagoela adierazten duenean. Horren ondorioz, ebazpena prestatu eta jakinarazteko epea eten egingo da irizpen hori eskatzen denetik jasotzen den arte, interesdunei horren berri emanda aldezturik.
- VI. Hala badagokio, Udalaren Osoko Bilkuraren akordioa kontratua suntsitzeko.

Prozedurari amaiera emateko ebazpenaren gehieneko epeari begira, aipatzekoa da kontratuen gaineko araudietan ez dagoela gehieneko epe zehatzik jasota, baina aplikatzekoa dela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 21.3 artikuluan aurreikusten den hiru hilabeteko gehieneko epe orokorra. Halaber, ebazteko gehieneko epearen barnean akordiorik lortzen ez bada, espedientea iraungi egingo da (39/2015 Legeko 25.1 b) artikulua).

Hori guztia kontuan hartuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Herri lanaren kontzesioko kontratua suntsitzeko prozedura abiaraztea, Asti jolasgunean taberna-jatetxea izango den eraikin berria eraikitzea eta aisialdiko instalazioak egitea dela eta, baita horren ustiapena ere (2013I1200011 espedientea). Kontratu hori Txintxilik II Zarauzko Udalaren Sozietate Emakiduna SLrekin formalizatu zen, eta suntsitzeko prozedura abiaraziko da kontratistari egotz dakizkiokeen honako bi kausa hauengatik:

1. Berandutu egin da kontratuaren epe partzialak betetzen, AKPArekin (21.A klausula), kontratuko zazpigarren estipulazioarekin eta SPKLTBko 212.6 artikuluaarekin bat etorriz, lege testu bereko 269. artikuluko k letraren harira. Izan ere, 3 hilabeteko epea zuen «*taberna-jatetxearen lanen eta jardueraren proiektuak, eta atsedenekua hornitzeko edo bertako lanen proiektua (Zarauzko Udalak onetsi beharko ditu proiektuak)*» aurkezteko (AKPAko 4. klausula, esleipen akordioko xedapen zatiko lehen zenbakia, kontratuko bigarren estipulazioa eta 2018ko azaroaren 12ko errekerimenduaren azken paragrafoa). Halaber, Txintxiliki 2018ko azaroaren 13an jakinarazitako errekerimenduari jarraituz, horiek guztiek bat etorri behar dute «*18. eremuko aisialdi gunea (Asti kirolgunea) berritzeko plan berezian jasotako baldintzekin, baita kontratua esleitzeko oinarri izan diren baldintza teknikoaren agirian jasotako gainerako aurreikuspenekin ere*».

2. Kontratuaren funtsezko prestazio baten gauzatzea ez du bete, eta kontratuaren xedearen zati bat da; alegia, aipatu diren proiektuak aurkezteko betebeharra ez du bete, horretarako berariazko borondate errebeldea izanda. Horren ondorioz, ezin dira egin Asti jolasgunean taberna-jatetxea izango den eraikin berria gauzatzeko obrak, AKPAko 21.B klausularekin bat etorriz, eta 1. klausularekin, 24 b) klausularekin lotuta, baita BTAko 2.1 eta 2.2 aginduekin, kontratuko zazpigarren estipulazioarekin, eta SPKLTBko 223 h) eta 269 j) artikuluekin ere.

Horrenbestez, eraturako behin betiko bermea galdu egingo du, zigor klausula gisa eta AKPAko 21. klausulari eta kontratuko zazpigarren estipulazioari jarraikiz.

Bigarrena.- Entzunaldiaren izapidea ematea Txintxilik II Zarauzko Udalaren Sozietate Emakiduna SL kontratistari eta Txintxilik SL (IFK: B75097485) eta Construcciones Asti Aran SL (IFK: B20637187) bermatzaileei, hamabost eguneko epean.

Hirugarrena.- Akordio hau jakinaraztea Txintxilik II Zarauzko Udalaren Sozietate Emakiduna SL kontratistari eta Txintxilik SL (IFK: B75097485) eta Construcciones Asti Aran SL (IFK: B20637187) bermatzaileei.

19.- ZARAUZKO ERAZTUN BERDE-URDINAREN PROIEKTUA ONARTZEA

2016AAAA0001 espedientea

Lehenik eta behin, idazkari andreak akordio-zirriborroa irakurri du eta, segidan, gaia eztabaidatzeari ekin diote.

Eztabaidaren baitan, EH BILDU udal taldeak aztergaia mahai gainean uzteko eskatu du, hurrengo osoko bilkura batean aztertzeko.

Hori horrela, batzarburuak aginduta, bozketa hauek egin dituzte.

GAIA MAHAI GAINEAN UZTEKO ESKAERA

Botoak alde:	6	(6 EH Bildu)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)

Beraz, adierazitako botoekin, eskaera atzera bota dute.

AKORDIO PROPOSAMENA

Botoak alde:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Botoak aurka:	—	
Abstentzioak:	6	(6 EH Bildu)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du:

“2010eko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Iraunkortasunerako II. Ekintza Plana (2009-2017) eta Klima Aldaketaren Aurkako Plana onartu zituen Udalbatzarrak. Bertan, honako ekintza dago jasota:

- A 4.3.1 “ERAZTUN BERDE-URDINAREN PROIEKTUA” egin, hiri-gunea inguruko espazioekin hobeto lotzeko, ibilbide naturalen bidez eta hiri-gunearen mugei tratamendu berezia emanaz.

Horren guztiaren xedea zen 11,7 kilometroko ibilbide zirkularra antolatzea hirilur gunearen perimetroan, aisialdiaz gozatzeko eta herriko ingurune naturalak eta haien balioak ezagutzera emateko (hondartza, Iñurritzako biotopoa, Santa Barbara, Mutxio...). Hasieratik, Zarauzko Udalaren eta proiektu honen helburua izan da ibilbidea egoera onean jartzea oinezkoentzat eta bizikletentzat.

Ondoren, proiektuaren hainbat azterketa eta eguneraketa egin dira.

2015ean, Udal Gobernuak 2015-2019 agintaldirako planean sartu zuen “Zarauzko Eraztun berde-urdina” egitasmoa, helburu estrategiko gisa, eta 400.000 euroko aurrekontua jarri zuen horretarako.

“5.8 Eraztun berde-urdina egitasmoa garatu eta gizarteratu

Zarautzek ingurune natural aberatsa du, berdez eta urdinez inguratuta dago, mendiz eta itsasoz hain zuzen ere. Talaimendi, Biotopoa eta bere babes-guneak, Pagoetako parke naturala, Urteta eta Urdaneta inguruak, Indamendi, Elkano eta Vista Alegreko parkea, Santa Barbara eta hondartza eta itsasoa. Ingurune natural horien guztien balioak eta zaintza egokia egiteko jarraibideak dibulгатuko dira.”

ERAZTUN BERDE-URDINAREN helburua da 11,7 km-ko ibilbidea kontsolidatzea, Zarauzko biodibertsitatea eta natura zaintzeko. Batetik, udalerriko espazio naturalak babestu eta zainduko dira; eta, bestetik, ingurumen heziketa eta sentsibilizazio lana egingo dira. Badira, era berean, zeharkako beste hainbat helburu ere: kirola egitea, naturaz gozatzea aisialdian edota turismo ekologikoa bultzatzea.

Une honetan, proiektua kontsolidatzeko, formalki onartzea aurreikusten da.

Udalbatzaren osoko bilkurari dagokio ERAZTUN BERDE-URDINA izeneko egitasmoa formalki onartzea.

Herritarren arloko informazio-batzordeak eztabaidatu du espedientea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

ZARAUZKO ERAZTUN BERDE-URDINAREN PROIEKTUA onartzea.

20.- ESKARI-GALDERAK.

Ez du inork hitz egin.

Gai-zerrendan sartutako gaien azterketa amaitu ostean, aurtengo agintaldiko azkenengo ohiko osoko bilkura dela-eta, lehenbizi udal taldeetako bozeramaileek eta bukaeran **alkate** jaunak eta **idazkari** andreak agur-hitzak izan dituzte.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortziak eta bostean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.